

EUSKAL HERRIKO EKONOMIA FEMINISTA ESKOLAK

(Apunte metodologikoak eta modulo pedagogikoak)



-Euskaraz, laburtutako itzulpena-



Mundubat

EUSKAL HERRIKO EKONOMIA FEMINISTA ESKOLAK

(Apunte metodologikoak eta modulo pedagogikoak)

-Euskaraz, laburtutako itzulpena-



Mundubat

Egiletza: Ara!Gorputz Koop. Elk. Txikia

Edizio data: 2022. urtea

Diru-laguntzailea:



**Gipuzkoako
Foru Aldundia**
Diputación Foral
de Gipuzkoa

AURKEZPENEA

2020-2021. ikasturtean, Ara!Gorputz-eko kideei Ekonomia Feminista Eskolatxo prozesu bat egitea proposatu ziguten Mundu Bat Fundaziotik. Guk, prozesu hau euskaraz egitearen nahi-beharra adierazi ostean, baiezkoa eman ziguten. Sorpresa ederra izan zen, bai eta erronka handia ere.

Hasieratik ikusi genuen prozesua gure hizkuntzan egitearen balioa, honek une gozagarri eta konplexuak zituela kontuan izanik. Alde batetik euskara gure ama hizkuntza izanda, eta Ara!Gorputz-en erabiltzen dugun mintzaira nagusia (bakarra ere esan genezake), bizipenak zein teoriak gorputzetik ateratzea eta izendatzea errazagoa iruditu zitzaigun, nahiz eta zenbait hitzen itzulpenak oraindik berrikusteko eta batzuek elkarrekin ber-izendatzeko dauden. Kontziente izan ginen bestalde, prozesuan parte hartuko zutenen perfilak antzekoagoak izango zirela, hots, heterogeneitatearen parte bat galduko zela, parte hartzeko, euskalduna izatea ezinbesteko baldintza zelako.

Ez dugu bistaz galdu(ko) euskaraz bizitzearen erronka gure jendartean, eta ahal den neurrian, baliabideak eskaintzen jarraituko dugu parte-hartze zabala sustatzeko eta taldeen heterogeneitatea kontuan izateko.

Beraz, behin erabakia (eta erronka) gure gain hartu genuela, poliki-poliki, gauzak zaindu eta goxo eginez, Oarsoko Ekonomia Feminista Eskolako (Oartzun, Orereta eta Bidasoako kideez osatutako taldea) saioak burutzen genituen bitartean, gidoien informazio guztia euskarara itzultzen joan ginen, bai dinamika ezberdinak, eta baita gida metodologikoak biltzen duen informazio teorikoaren zati handi bat ere.

Jarraian topatuko duzun testuan, ez dago gaztelerazko (txosten originala, hemen) bertsioan jasotzen den eduki guztia, laburpen bat da, baina pentsatzen dugu, baliagarria izango dela prozesu zoragarri honen (hauen) informazioa gure hizkuntzan izateko. Hizkuntzak egiten gaituelako, eta guk bitartean, hizkuntza ere (ber)egiten dugulako.

Aurkezpenarekin amaitu baina lehen eskerrik beroena eman nahi diogu itzulpen lan honetan bidelagun izan dugun A!G-ko kolaboratzaile maite eta anonimoari.

Ara!Gorputz Koop. Elk. Txikia
(Ione F. Zabaleta eta Enara I. Dominguez)

AURKIBIDEA

Metodologia auzi politiko gisa

Bidea helmuga bezain garrantzitsua da	10
• Prozesuak kokatu	
• Prozesuak zaindu	
Osotasunaren atalak	13
• Dinamizatzaileen rola	

I. MODULUA: Patriarkatua, sexu araberako lan banaketa eta Ekonomia Feminista

Moduluaren deskribapen orokorra	16
Ekonomia (gure) bizitzetarik	17
Patriarkatua	18
Sexuaren araberako lan banaketa	19
Feminismoa, Ekonomia Feminista eta ikuspegi androzentrikoei kritika	20

II. MODULUA: Kapitalismo neoliberalak

Moduluaren deskribapen orokorra	22
Zertaz dihardugu hizketan, kapitalismo neoliberalak esaten dugunean?	23
Kontsumoari dependentzia	24
• Beharrak eta gogobetetze-faktoreak	
Kapitalismo neoliberalak gure bizitzetan	26
Kapitalismo neoliberalak Euskal Herrian	28

III. MODULUA: Emakumeon* diru sarrerek sortzeko ekimenak

Moduluaren deskribapen orokorra	30
Kontsumoa Ekonomia Feministaren ikuspuntutik	31
• Muntai gaiztoa	
• Behar dena baino gehiago kontsumitzen da	
Emakumeok* diru sarrerek sortzeko ekimenak	33
• Diru-sarrerek sortzeko ekoizpen-esperientziak	
• Zuzeneko salmentako esperientziak	
Emakumeok* diru sarrerek sortzeko ekimenak, atzekoz aurrera egiratzen	35
• Susmometroa aplikatzen	
• Gu eta dirua	

IV. MODULUA: Erresistentziako Esperientzia Ekonomikoak, Emakumeongandik*

Moduluaren deskribapen orokorra	38
Emakumeon* ekonomia esperientziak	39
Bizitzak Ekonomia Feministaren ikusmoldeak	40
• Barruan daramagun munstroa: matrize koloniala apurtzea	
• Historiaren zentzua zalantzan jarritz	
• Gure inguruan hitz egin	
Emakumeon* esperientzia ekonomikoen ezaugarriak	41
• Antolaketa kolektiboa	
• Erresistentzia geruzak	
• Zainketak, auto-zainketak eta ez zaintzeko eskubidea (inor zaindu gabe gera ez dadin)	

V. MODULUA: Erresistentzia antikapitalista, antineoliberal, antipatriarkal eta dekolonialetarako proposamen sistemikoak

Moduluaren deskribapen orokorra	46
Antikapitalista, antineoliberal, antipatriarkal eta dekolonialak diren erresistentzia sistemikorako proposamenak	47
Susmometroa aplikatuz	49
• Kapitalismo, neoliberalismo, patriarkatu eta kolonialitatearen kontra dauden erresistentzia proposamenen bereizgarritasunak	

VI. MODULUA: Eskubideak, beharrak eta pribilegioak

Moduluaren deskribapen orokorra	52
Estereotipoak eta aurreiritziak	53
• Zer dira eta nola funtzionatzen dute gure eguneroko bizitzan?	
• Auto-nahikotasunaren eta zoriontasuna eredu faltsuaz hausnartzen	
• Eskubideak, desberdinkeriak eta pribilegioak	

VII. MODULUA: Dekolonialtasuna eta desiraren ber-jabetzea fugarako potentzia gisa

Moduluaren deskribapen orokorra	58
• Mundu kolonialeko larruak	
• Bestelakotasuna, ezkutuko mehatxu iraunkor gisa	
Botere matrize koloniala deuseztatzen	59
• Inkontzientearen deskolonizazioa	
lhesguneak, askotariko feminismoetatik	61
• Greba Feminista eta zainketen lanuztea	
• Gorputz gozagarriaren ber-okupazioa	

VIII. MODULUA: Ziklikotasuna eta emakumeon* gorputzen kolonizazioa

Moduluaren deskribapen orokorra 62

Hormonen dantza, emozioak eta talka kulturalak 63

- Hilerokoaren Fasea
- Aurre-Obulazio Fasea
- Obulazio Fasea
- Aurre-Hileroko Fasea

Gorputzen kolonizazioa 65

- Hitzek errealitatea sortzen dute



METODOLOGIA AUZI POLITIKO GISA

Bidea helmuga bezain garrantzitsua da

Metodologia gai politikoa da. Proposatzen ditugun helburuak lortzeko garatzen ditugun prozedurak zaintzea da metodologia. Ideia, sentimendu, denbora eta koiuntura politiko, sozial, historiko zein lurraldekoak aintzat hartu behar ditugu estrategia metodologiko bat diseinatzeko orduan. Metodologia ez da neutrala ezta aseptikoa ere. Egiteko moduaz gain izateko modu bat da.

Tamalez, epe laburreko logika produktibista eta kuantitatiboa gailentzen da maiz prozesuetan. Baina guretzat zer, nola bezain garrantzitsua da. Bitarteko eta helburuak bereizi-ezinak zaizkigu, metodologia bera helburu bat delako guretzat. Honegatik, forma, modu, harreman eta hauek dakartzaten dinamikei arreta osoa eskaintzen diegu. Prozesuek, garena, pentsatzen duguna eta nahi duguna islatzen dute, eta honegatik koherenteak izan behar dugu urrats bakoitzean.

Hierarkizazioak ber sortuko ez dituen baldintzak sortzen saiatzen da metodologia kritiko-emantzipatzailea. Honen harira, denok irakasteko eta ikasteko gauzak ditugula uste dugu, Freirek zioen bezala, «irakatsiz zein ikasiz, ikasten dugu». Jakintza, elkartruke horizontaletan, hizketako eta entzute aktiboko prozesu dialogikoen bidez, kolektiboki eraikitzen eta transmititzen joaten da. Zentzu honetan, ideia eta praktikak elkar elikatzen doaz.

Euskal Herriko Ekonomia Feminista Eskolak, guretzako espazio-denborak dira. Elkar topatzeak gertatzen zaiguna gertakari isolatu moduan ez bizitzea ahalbidetzen digu, eta egitura sozialean antzeko posizioak izateagatik antzeko bizipenak ditugula ulertzen dugu: emakume* izateagatik, zenbait zapalkuntza-ardatzek zeharkatzen gaituzte.

Konplizitate eta aniztasunetik elkar ezagutzeak, gure bizi-egoerak kolektiboki politizatzea ahalbidetzen du eta gertatzen zaiguna desnaturalizatzeko prozesuan murgiltzeko aukera ematen digu. Jakintzari ematen zaion lekua zalantzan jartzen dugu, hau desegin eta berriz okupatu.

Laburbilduz, metodologia tresna boteretsua da. Dena zeharkatzen du, egitura soziala, politikoa, ekonomikoa eta kulturala mantentzen lagunduz (edo ez). Hausnarketa, kritika eta autokritika landu nahi baditugu, gaien eta iritzien

aberastasunean oinarritutako eztabaida eta berrikuspena sustatu nahi baditugu, eta kontraesanak eta gatazkak inter-ikaskuntzaren zati gisa lantzen baditugu, metodologiari arreta jarri behar diogu.

Prozesuak kokatu

Diseinatzen den metodologiaren osotasunaren arabera izango da prozesuaren baliozkotasuna. Hori horrela da kokaturiko prozesuez ari garelako, hots, testuinguru zehatzetatik abiatuta, zentzumenak eta edukiak aintzat hartzen ditugulako. Honela, lurralde, komunitate, gorputz eta denborek, hautemate, eduki eta berezitasunak ematen dizkiete prozesuei. Metodologia ez da kopiatu eta itsatsi daitekeen lataratze bat. Non eta noiz hedatzen den kontuan hartuta egokitzea erronka izateaz gain, erantzukizun politikoa ere bada. Euskal Herriko Ekonomia Feminista Eskoletan egiten dugun apustua ulertzeko funtsezko gaia da metodologia.

Herri-hezkuntza, pedagogia feminista eta susmoaren filosofia dira, elkarrekin lotuta, eskolen zutabe pedagogiko, filosofiko eta epistemologikoak. *Herri-hezkuntza*, komunitateek jakintzak eraikitze, indartzeko eta transmititzeko modu ez hierarkikoa da. *Pedagogia feministak*, menderatze sistemak sustraitik hausteko marko eta praktika politikoak eskaini dizkigu. Zentzu honetan, norbanako bakoitzaren eta guztien bizitzarako tresna askatzaile gisa darabilgu. *Susmoaren filosofia*, zeharkatzen gaituzten eta mugiezintzat aurkezten zaizkigun diskurtso, praktika eta harremanak zalantzan jartzea, desnaturalizatzea eta deseraikitzea ahalbidetzen digun motorra da. Finean, errealitatea kritikoki irakurtzeko eta eraldatzeko ezagutzak eta praktikak eraikitze prozesu kolektibo etengabea da Ekonomia Feminista Eskola.

Norbera da bere itsasontzian kapitain. Bakoitzak bere burua berrasmatzen du, erritmoak errespetatuz, errealitate, une eta bizipenak presionatu gabe aldaketa sakonak ematen dira. Jarrera konplize, galdetzaile, mesfidati eta errebelde batean kolektiboki ibiltzeak geure burua baieztatze, izendatzeko eta aitortzeko aukera ematen digu.

Prozesuak zaindu

Zaintzea, parte-hartzaile guztien erosotasuna uneoro bermatu ahal izateko baldintzei so egotea da. Zaintzea, eustea da, sostengatzea. Hurrengo irizpide politiko-metodologikoak zaintzen ditugu:

- **Malgutasuna eta horizontaltasuna.** Saio bakoitza, landuko diren gai eta helburuen arabera planifikatzen da. Hala ere, honek ez du esan nahi proposamena mugiezina izango denik. Malgutasunak, horizontaltasuna eta pribilegioak lantzea ahalbidetzen du. Denbora-espazio demokratiko eta irekia sustatzeko ardura dugu. Irekiera-uneak benetakoak izan behar dira, eta balorazio-uneak, berriz, etengabeak.
- **Erritmo kiribilak.** Gaiak (eta ondorioz egunak ere) elkarri lotuta daude. Erritmo kiribilduak denboraren linealtasuna hausten du. Saioak konektatu egiten dira, eta elkarriketarako hainbat gai mahaigaineratzen dira. Partekatutakora itzultzen da, etengabe, eta beste angelu batzuetatik begiratzen zaio, elementu berriak txertatuz.
- **Aniztasunen kudeaketa.** Adin, arraza, aniztasun funtzional, migrazio-prozesu, amatasun, indarkeria, gaixotasun, aukera sexual-afektibo, familia-eredu, historia, kultura, hizkuntza, erlijio, mundu ikuskera, egoera ekonomiko, prestakuntza, etxebizitza, etab. desberdinetako emakumeak* gara. Eta ondorioz, gure errealitateak, ibilbideak, begiradak, istorioak, proiektzioak, interesak eta motibazioak anitzak eta dinamikoak dira. Aniztasunak aberastasuna dakar, baina aurreiritziak, beldurrak eta arbuioak ere azaleratzen ditu. Asimetriak sortu daitezke aniztasuna kudeatzen eta lantzen ez bada. Garrantzitsua da ezberdintasunak esplizitatzea, hierarkiarik ezarri gabe eta guztiak berdin tratatu gabe.
- **Bizipenezkoa eta inter-subjektiboa.** Teoria eta praktikaren arteko dikotomia faltsuak desmuntatzen ditugu. Gorputza eta ideiak, afektuak eta kontzeptuak, publikoa eta pribatua, emozioak eta arrazoia konbinatzen ditugu, banandu gabe. Sentitzen duguna eta berau bizi dugun modua entzuten goaz. Erregistro, adierazpen-modu eta hizkera desberdinak txertatzen ditugu: isiltasunak, keinuak, gorpuztasuna, desirak, emozioak, mugimendua, lasaitasuna, zentzumenak, ahotsak, begiradak, artea, jolasa, jai-giroa, etab.-ek komunikatzeko, elkar ezagutzeko eta partekatutakoari zentzuak eta esanahiak emateko modu berriak eratzen ditu. Ideiak eta emozioak gorputzetatik pasatzea jakintza emantzipatzaileen eraikuntza kolektiboaren funtsezko alderdia da.

- **Haustura emantzipatzailea.** Guztion artean, gauzak izendatzeko eta egiteko beste modu batzuk aurkitzea interesatzen zaigu. Gure bizi-beharrak eta gure nahiak, maila pertsonal zein kolektiboan, prozesuari zentzua eta edukia ematen dioten motorrak dira. Esperientzia horretatik abiatuta beste agertoki, praktika, sentipen eta harreman-modu batzuk sortzeko, herri-jakintzak eraikitzea eta konplizitateak finkatzea interesatzen zaigu.

Osotasunaren atalak

Prozesua aurrera eramatearen aldeko apustua egiten dugu eta zentzu honetan, saioen arteko loturak egiten dira momentu eta era ezberdinetan. Edukiak lurreratzeko eta erlazionatzeko aukera ematen duten uneak osatzen dira. Saio bakoitzeko alderdiek, eta prozesuaren une bakoitzak, bere garrantzia, berezotasuna eta izaera guztiz politikoa dute. Dinamika bakoitzak, gaiarekin eta gainerako jardurekin lotutako bere zentzua eta zergatia ditu.

Hainbat dinamika pertsonal, kolektibo, ludiko, gogoetatsu, gorputzeko eta artistiko konbinatuz, besteak beste, hautemateak, aurreiritziak, zauriak, aztarnak, beldurrak, autoestimua, bizi-beharrak eta desioak lantzen ditugu. Erregistro desberdinekin jolasteak, problematikak dimentsio eta maila desberdinetatik lantzeko aukera ematen du. Zentzu honetan, gure eskolako tailer bakoitzak hainbat barne zati izan ohi ditu:

- **Ongi etorria.** Gorputz mugimenduko ariketa ludiko-esploratzaileak dira, espazioan zehar errotazioan eta kideekin kontaktuan egotea bilatzen dutenak. Gorputza lasaitzea eta orokorrean, saiora "iristea" da ongi etorriaren xedea.
- **Aurkezpena, egunaren helburuak eta bizikidetzak-akordioak.** Lehen egunean, denek aurkezten dugu gure burua eta elkarbizitza akordioak adosten ditugu (konfidentzialtasuna, puntualitatea, ez epaitzea, mugikorak isil araztea...). Eta saio guztien hastapenean, egunean jorratuko diren gaiak eta helburuak partekatzen dira.
- **Erritua.** Emakume* mesoamerikarretatik dator. Oihal baten gainean, biribilean lau kandela jartzen dira (gorria: sua/odola, urdina: itsasoa/emozioak, horia: airea/burua eta berdea: lurra/zainak), eta erdian, beste bi (morea: feminismoa eta zuria: oreka/kaltzioa). Aldare honetan loreak, ura, lurra, haziak, frutak eta mineralak ere jartzen dira. Garaiaren arabeko elementuak jar daitezke, eta partaideek beraientzako kuttun diren objektuak gehitzen dituzte. Ondasun komunean, geure buruarekin eta lankideekin konektatzea bilatzen dugu.

- **Talde handiko dinamikak.** Guztien artean egiten diren ariketak dira eta gai jakin baten inguruko lehen hurbilketa egiten laguntzen digute.
- **Dinamikak talde txikietan.** Talde txikiek hurbiltasuna eta hitzaren zirkulazio handiagoa ahalbidetzen dute. Talde handian irekitzen diren gaiak hemen sakontzen dira.
- **Lana maila pertsonal eta indibidualean egiteko tarteak.** Gure buruaren, jardunaren, hurbileko inguruen eta historia pertsonalen lanketak egiteko uneak dira. Ikasitakoa maila intimoan berrikusteko tarteak dira.
- **Bateratzeak.** Aurreko hiru uneetan landutakoa partekatzen da. Itxuraz isolatuta dauden egoeren arteko egiturazko loturak azaldu, eta erresistentzia-estrategiak sozializatzen dira.
- **Elkarrizketa bidezko errepasoa eta edukien aurkezpena.** Bateratzearen barruan, zenbait edukien inguruko aurkezpen didaktikoa eta landutako kontzeptuen berrikusketa elkarrizketatua gauzatzen ditugu. Saioaren amaiera aldean egiten den sintesi ariketa bat da.
- **Balorazioa.** Unearen eta fasearen arabera, modu ezberdinean, sakontasun edo arintasun handiagoz elkar nola hartu dugun partekatzen dugu.
- **Agurra.** Errituaren inguruan egiten dugu. Indarrak ematea, partekatutako unea eskertzea eta kontaktu fisikoa izaten ditu ardatz. Landutakoa, sentitutakoa eta eguneko erritua lotuz, saioari itxiera kolektibo bat ematea du helburu.


Saio bakoitza orokorretik abiatzen da, ostean arlo pertsonalean murgiltzeko eta hortik ere egoera politizatzeko. Zentzu zabalean, bizitzetatik abiatzen gara gero bakoitzaren errealitatean gelditzeko. Ariketetan bizi-egoerei heltzen diegunean, tentsioak eta kontraesanak agertzea ohikoa da eta hauek lantzeak beldurrak eta deserosotasunak sor ditzake. Horregatik da garrantzitsua poliki eta teknika ezberdinak uztartuz aurrera egitea, konfiantza eta intimitatea asko landuz.

Dinamizatzaileen rola

Malgutasuna eta irekiera oso irizpide garrantzitsuak dira, baina aldi berean ikuspegi politikoari eta planteatzen ditugun helburuei begiratzea ezinbestekoa da. Gogotsu eta erne egon behar gara. Herri-hezitzaile garen aldetik, rol politikoa dugu, ez dugu coaching edo talde-terapiarik egiten.

Prozesu oso disruptiboak laguntzen eta errazten ditugu. Dinamizatzaileok, zentzu horretan, taldeko kide gara. Dinamiketan parte hartzen dugu, taldekideekin inplikatzeko gara, gure sentipenak azaltzen ditugu. Erraztea da gure rola. Ez gara gidariak, ez abangoardiak. Elkarrikeria eta topaketak errazten ditugu, hitzaren zirkulazioa, bakoitzaren isiluneak eta denborak errespetatzen direla zaintzen dugu.

Bitartekoak jartzen ditugu prozesua, hurbileko espazio-denbora segurua eta konfiantzazkoa izan dadin. Botere harreman asimetrikoegia ber sortu gabe berdintasunez parte hartzea, eta aldi berean dinamizazio rolak betetzea, ez da lan erraza. Zorionez, oso lan aberasgarria eta dibertigarria da.



I. MODULUA:

Patriarkatua, sexuaren araberrako lan banaketa eta Ekonomia Feminista

MODULUAREN DESKRIKAPEN OROKORRA

Luzeena eta eduki aldetik zabalena izatea da lehen modulu pedagogiko honen ezaugarria. Prozesuan zehar sakontzen diren kontzeptu nagusiak eta oinarri ideologiko, pedagogiko eta metodologikoak aurkezten ditu.

Emakumeon* bizi-egoerak, egunerokoa osatzen duten gaien multzoa, abiapuntu eta helmuga dira. Gure bizi-egoera kolektiboki politizatzen dugu, bakoitzari gertatzen zaiona gertakari isolatu bat ez dela ulertzea funtsezko ariketa delako. Gai estruktural eta sistemikoei erantzuten diela. Gauza horiek eta ez beste batzuk gertatzen zaizkigu, jendarte-egituraren antzeko jarrerak partekatzen ditugulako.

MODULUAREN HELBURU NAGUSIAK

- Bizitzari eusten dieten guk egindako ahaleginak, denborak eta lanak banatzeko beste modu batzuk azaleratzea, ezagutzea eta planteatzea.
- Kontsumismoaren eta diruaren diktadurak desagiteko bidean kokatzeko, gure bizi-beharritzari buruzko eztabaida serioa irekitzea.
- Sistema kapitalista eta patriarkalek gure gorputzetan eta bizitzetan sortutako atxikimenduei, erruei, beldurrei eta rol sozialei aurre egitea.
- Aisialdirako, elkartzeko eta nor bere burua zaintzeko espazio-denborak sustatzea.
- Kapitalismo neoliberalaren eta patriarkatuaren aurrean erresistentzia pertsonal eta kolektiboak piztea.



Ekonomia (gure) bizitzetatik

Bakoitzaren bizi-egoeratik abiatuz, besteekin zubiak eraikiz eta bizipenak gorpuztuz, edukiak birdimentsionatzen joango gara prozesuan zehar.

Ekonomia Feministak merkatu-ekonomiaren mugak hausten ditu eta zirkuitu ekonomikoa askoz zabalagoa dela erakusten du. Sistema patriarkal eta kapitalistaren funtzionamenduaren azterketa kritikoa ahalbidetzen du eta egungo jendartearen oinarri diren hiru zutabe astintzen ditu:

- **Lana:** Bizi-beharrak asetzeko energia-xahuketa oro da lana Ekonomia Feministaren arabera. Erroteria kapitalistaren oinarrian ordaindutako lanez gain, emakumeok* historikoki egin ditugun ahalegin, prozesu eta denborak daude. Hauek dirurik sortu ez arren, balioa sortzen dute. Etxean kozinatzeak adibidez ez du dirua sortzen baina erositakoa jangarri bilakatzen du. Beste era batera esanda, ordaindutako lanaren bidez lortutako diruaren balioa hedatu egiten da ordaindu gabeko lanarekin. Aitortu gabeko lan hauek gainera, funtsezkoak dira bizitza eta bizi-sarea zaintzeko, mantentzeko eta ber-sortzeko.
- **Beharrak:** Kontsumismoak sustaturiko zoriontasun ereduak behar faltu asko sortu ditu. Behar hauen gaineko begirada kritiko bat egitera gonbidatzen gaitu Ekonomia Feministak: hainbat erosotasun eta pribilegio berrikustera.
- **Zaintzak:** Zainketak erantzukizun kolektibo, eskubide eta bizi-premia gisa hartzen dira. Guztiok behar ditugu, intentsitate ezberdinez une desberdinetan. Zainketek, hauskortasunarekin eta izaki bizidunen arteko ezaugarri komuna den eko-interdependentziarekin zerikusia dute. Baina gure kabuz egin dezakeguna eta egiten ez duguna ez dira zaintzak, betetzen ez ditugun ardurak baizik, normalki emakume* pobretuei lagatzen dizkiegunak.

Bizitza zaintzeak ekonomiaren ardatz nagusietako bat izan beharko luke. Zaintzen inguruan ulertzen duguna ber-dimentsionatu behar dugu, lan hauek modu bidezkoago batean antola daitezen.

Patriarkatua

Ezaugarri biologikoen arabera (sexua) pertsonen hainbat leku eta rol sozial (generoak) esleitzen dizkien menderatze-sistema da patriarkatua. Beste zapalkuntza-ardatz batzuekin estrategikoki konbinatuz, hala nola klasearekin, arrazarekin, etniarekin, adinarekin, aniztasun funtzionalarekin eta abarrekin; bereizketa eta hierarkizazio printzipioak aplikatzen eta konbinatzen ditu. Hala, ezaugarriak, posizioak eta espazioak esleitzen dizkio gizon eta emakumeoi*, femeninoari eta maskulinitasunari.

Patriarkatua, produktu historiko gisa, menderatzean eta esplotazioan oinarritzen da. Indarkeria eta bidegabekeria ugariren poderioz inposatu da, eta horiek denboran zehar askotan bertakotutako dinamika, praktika eta ohituren bidez iraunarazten dira.

Patriarkatua ideologia gisa, naturalizatzen eta barneratzen diren balioz elikatzen eta mantentzen da hein handi batean. Emakume* gisa munduan jarduteko, lan egiteko, sentitzeko, desiratzeko, zaintzeko, erabakiak hartzeko moduetan, patriarkatua iraunarazten dugu.

Patriarkatua jendarte-eraikuntza gisa, ez da gauza naturala. Aldatu daitezkeen (eta aldatu behar diren) arau, erakunde eta praktika kulturalen zati eta emaitza da.



Sexuaren araberako lan banaketa

Lana sexuaren arabera banatzeak, zereginen balorazio desberdintasunarekin, eta maskulinitasunaren eta feminitatearen arteko lotura bereizgarriekin dauka zerikusia. Hau, toki guztietan ematen da: etxe barruan, kanpoan, militantzia-guneetan, baserrian...

- **Patriarkatuaren funtsezko erakundeetako bat:** Hainbat zapalkuntza-faktorek batera (hala nola klasea, arraza edota jatorri geografikoa), lanen banaketa sistematikoa ezartzen dute. Modu arbitrario eta aldebakarrekoan esleitzen dizkigu emakumeoi* gaizki deituriko erreproduzio-lanak eta gizonei produkzio-lanak.
- **Zainketa-lana feminizatzea eta gutxietea:** Sistema ekonomikoak izotz mendi gisa funtzionatzen du, eta gainazalean agertzen dena baino ez da ikusten. Horrela, alde ikusgarria, alderdi monetarioari, produkziokoari eta maskulinitasunari lotua dago, eta ikusezina berriz, monetarioa ez denari, ugalketari eta feminitateari lotuta.
- **Errua, morrontza eta zainketen etika erreakzionarioa:** Emakumeok* lanaren banaketa sexuala barneratzea tranpa historikoa da. Gure identitateen eraketa, lan hauen “jardun onarekin” lotuta dago. Nagusiki familia nuklearraren esparruan egiten direnak, “maitasunagatik” egiten direla kontatu digute. Ama-emazte-zaintzaile ona izatea da guregandik espero dena.

Lanaren banaketa sexualak mundua bitan banatzen du. Emakume* eta maskulinoaren idealari erantzuten ez dion guztia, gizonekiko mendekotasun-posizioan kokatzen da: femeninoaren, pribatuaren, afektiboaren, irrazionalaren, ez-monetarioaren, ez-politikoaren, urperatuaren, sentikorraren, ahularen, zainduaren eta etxeakoaren artean lotura automatikoa ezartzen da. Aitzitik, arlo publikoarekin, boterearekin, diruarekin, arrazionalarekin, politikarekin, produkzioarekin, indarkeriarekin eta indarrarekin zerikusia duen guztia maskulinoari esleitzen zaio. Eraikitako desberdintasun horrek era askotara eragiten du, eta nonahi mamitzen da.

Feminismoa, Ekonomia Feminista eta ikuspegi androzentrikoei kritika

Ekonomia hegemonikoari egindako kritika feminista nagusien artean, alde batetik, genero itsutasuna salatzen da. Honek, sistema sozioekonomikoaren sostengurako ezinbestekoak diren zaintza lanak ez ditu aintzat hartzen eta ondorioz emakumeok* ikusezin bihurtzen gaitu.

Bestetik, ikuspegi antropozentrikoa eta androzentrikoa salatzen da. Izan ere, ikuspegi honek gainerako izaki bizidun guztien gainetik gizakia kokatzen du. Baina ez edozein gizaki, *Homo Economicus*-aren ideal faltsuari erantzuten dion gizakia baizik: neutroa, gaixotzen eta hiltzen ez dena, bere ardurapean inor ez duena eta bizitza mantentzeko beharrezko baldintzak (janaria, arropa, etxebizitza garbi eta ordenatua, etab.) konponduta dituen. Honen baitan dago antolatua ekonomia. Izaki buruaskien artean era askean elkartrukatzeko eta ahalik eta arrakastatsuen izateko eremutzat aurkezten da ekonomia.

- **Ekonomia Feministaren adarrak:** Ekonomia kapitalista eta neoliberalari egindako kritika feministek ez dute nahitaez gauzen ordena aldatzea planteatzen. Posizio desberdinak daude. Alde batetik, emakumeok* lan-merkatu kapitalistan baldintza hobeak izan ditzagun aldarrikatzen dutenak daude, enplegua eta familia bateragarri egiteko aukeraz jarduten direnak. *Kontziliazioaren Ekonomia Feminista* izendatzen den adarra da hau.

Bestetik, harago goazenak eta sistema kapitalista-neoliberal, patriarkal eta kolonialen funtzionamenduaren zutabeak eta logikak errotik berrikusteko eta eraldatzeko beharra planteatzen dugunok gaude. *Hausturaren Ekonomia Feminista* kokaturik gaude. Zirkuitu ekonomikoa, ondasunen eta zerbitzuen ekoizpena baino gehiago dela aldarrikatzen dugu. Baita ekonomiak bizitza ber-sortzea ahalbidetzen duten jendarte-baldintza guztiekin zerikusia duela ere.

Kapitala-Bizitza gatazkak agerian uzten du sistemaren iraunkortasun eza, ez dituelako bizitzak zaintzen, suntsitu egiten dituelako. Biozida da, bizitza hiltzen du; horretan datza kapitalismoaren kontraesan nagusia.



II. MODULUA: Kapitalismo neoliberala

MODULUAREN DESKRIBAPEN OROKORRA

Bigarren modulu honetan kapitalismoak hedatzen dituen prozesu batzuk xehatzen dira, hauek emakumeon* bizitza-gorputzetan sortzen dituen dinamikak identifikatzeko.

Egunerokoan sistema zein neurritan eta zein modutan txertatuta dugun pentsatzea da gure proposamena: neurri handi batean naturalizatuta ditugun praktika, harreman eta hautemateak eta berauen zergatiak zalantzan jartzea. Sistemak gure bizi-egoerak egokitu eta diziplinatu egiten ditu. Askotan, sistema, barruan daramagu. Estrukturalki eskubideak murrizteaz eta bizi-baldintzak okertzeaz gain, guk, gure agentzia-gaitasuna txikitu egiten dugu. Saltzen duguten zoriontasun-eredua erostean, erroteria neoliberala mantentzeko funtsezko ekoizpen eta kontsumo ohiturak eta harremanak barneratzen ditugu.

MODULUAREN HELBURU NAGUSIAK

Modulu honetan, gure bizitzaren dimentsio sozioekonomikoaren inguruko hausnarketa kritikoa egingo dugu, honako helburu hauek lortzeko:

- Kapitalismo neoliberal eta patriarkalak ezartzen dituen faktore baldintzatzaileak desnaturalizatzea.
- Ekoizpen eta kontsumo ohiturak behatzea.
- Sistema horiek gure bizitza-gorputz-lurraldeetan dituzten presentzia korapilatuak politizatzea.



Zertaz dihardugu hizketan, kapitalismo neoliberala esaten dugunean?

Kapitalismoa, jabetza pribatuan, lanaren ustiapenean (gizatiarra eta ez-gizatiarra) eta ondasun komun en espoliazioan oinarritzen den eta kapitala metatzea helburu duen sistema sozio-ekonomiko bat da. Gaur egungo faseak, globalizazioari lotutako *fase neoliberal*a deritzenak, ondasun komun en aurkako eraso globala, ekonomiaren finantzazioa, nazio-estatu en egitura berrantolaketa eta nazioz haraindiko merkatuekiko itxurazko menderakuntza barneratzea ditu ezaugarri.

Sistema kapitalistak, bere fase neoliberalen, “merkatu jainkoaren” agindupean funtzionatu en du: eskaintza en eta eskariaren lege en esparruan, bai maila fisikoan, bai sinbolikoan eta birtualean. Ekonomiaren, jendartearen, politikaren eta kulturaren arloko elkarreragin gehienak arautzen eta antolatzen ditu. Horregatik diogu sistema dimentsioaniztuna dela.

Sistema kapitalistak historian zehar berregituratzeko gaitasuna erakutsi du. Biziraupen eta ber-sortze estrategiekin indarberrituta ateratzeko, posiblekin sortzen jarraitzeko eta hauen balioa handitzeko gai dela ikusi da. Kapitalismoak bere fase neoliberalen dituen ezaugarri nagusien artean, honako hauek nabarmentzen dira:

- **Estatuaren erreforma eta pribatizazioak:** Merkataritza askearen funtsezko tresna dira. Eskubidetza hartzen diren zerbitzu publikoak, hala nola hezkuntza, osasuna eta pentsioak, enpresa pribatuei eman zitzaizkien eta ondorioz, merkantzia bihurtu. Arlo publikotik pribatura igarotzeaz gain, estatuaren egiturazko erreformak eta pribatizazio-politikek, eskubideak diruaren logikari atxikitzea ekarri zuten.
- **Merkatu irekiera:** Estatuak baldintza instituzional eta legal erakargarriak sortzen oinarritzen da, nazioz gaindiko enpresek lurralde nazionalen finkatzea erabaki dezaten. Estatu en arteko harreman asimetrikoak eragiten dituzte, eta herriak nazioz gaindiko enpresekiko menderatze egoerak kokatzen.
- **Lan-malgutasuna:** Merkatura irekitzearen eskutik, legeei eta enplegu-harremani aplikatutako erreforma multzoak dakar lan-malgutasuna. Langile en borroken lorpen historiko garrantzitsuak kolokan jartzen ditu, hala nola 8 orduko lanaldia, aparteko ordu en aintzatespena eta ordainketa, atsedeen-egunak eta negoziazio kolektiboa, besteak beste. Atzera pausu hauek, ezegonkortasun eta prekarizazio egoeretan jartzen gaituzte langileak.

Laburbilduz, kapitalismoak, bere fase neoliberallean, aldaketa esanguratsuak sortzen ditu pertsonen bizi-baldintzetan, bereziki emakumeon* bizi-baldintzetan. Bidegabekeria hori bi alderditan gorpuzten da: emakumeok* gara merkatu formal eta informaletan, diruz ordaindutakoetan eta ordaindu gabekoetan posizio prekarioena eta malguena dugunak.

Kontsumoarekiko dependentzia

Kontsumoaren praktika eta ideologia kapitalismo neoliberalaren sostengatzen duen erroteriararen oinarrietako bat da. Benetan eraldaketa emantzipatzaileak landu nahi baditugu, kontsumoari arreta eskaini behar diogu. Bizi-premiak, zaintzak eta sozialki beharrezkoa den lana birpentsatzeko ariketa osatzen jarraitzen da hemen, susmometroa kontsumismoaren nozioari aplikatzean.

Arrakasta, zoriontasuna eta zibilizazio ideala kontsumo-gaitasunarekin lotzen dira, erosteko ahalmenarekin. Kontsumoa eguneroko praktika bat da, baina baita mundu ikuskera bat ere. Erosteko gaitasunaren arabera jendarte-egituraren leku desberdinak ezartzen zaizkigu. Kontsumoaren ideologiaren baitan, garena, egiten dugunarekin eta daukagunarekin nahasten dugu. Inklusioa, erosteko gaitasunaren arabera da.

Beharrak eta gogobetetze-faktoreak

Gutxitan galdetzen diegu geure buruei: zer behar dugu benetan, bizitzeko? Zer ulertzen dugu bizi-beharrizan gisa? Normalean, kapitalismo neoliberalak behar gisa aurkezten diguna ez da zalantzan jartzen, ezta behar hauek asetzeko moduak ere. Jendartearen garapenean, historian zehar eta lurralde ezberdinetan, bizi-premiak antzekoak izan dira. Max Neef-ek bizitzarako behar horien artean hauek nabarmentzen ditu: biziraupena, babesa, afektua, elkar ulertzea, nortasuna, parte-hartzea, aisia, askatasuna eta sorkuntza. Hala ere, jendarte eta une historiko ezberdinetan behar horiek asebetetzeko moduak aldatuz joan dira.

Kapitalismo neoliberalak, beharrizan gisa ulertzen duguna eta berau asetzeko bitartekoak guztiz manipulatu ditu. Izan ere, kapital metaketa eta irabaziak ditu helburu, ez ondo bizitzea eta bizitzaren iraunkortasuna zaintzea.

Ariketa kritiko eta beharrezko bat da bizi-beharrak eta hauek asetzeko bitartekoak bereiztea. Pertsonak eta komunitateak beraien premiak, bizi-beharrak, asetzeko antolatzen dituzten bitartekoak dira asetzeko bitartekoak edo asebetetzailerak. Hauek, ukigarriak, ukiezinak, materialak, ez-materialak, ekonomikoak edo ez-

ekonomikoak izan daitezke. Logika neoliberalak asebetetzaile asko sortu ditu, askotan pertsonentzat kaltegarriak direnak, baita naturarentzat ere. Max Neef-en arabera, asebetetzaile-kategoria desberdinak bereiz daitezke:

- **Asebetetzaile bereziak:** Beharrian bat asetzeraz bideratzen dira eta beste premia batzuk asetzeko neutroak dira. Premia bat baino ez dute asetzen. Asebetetzaile-mota honen adibide, aisialdi-premiari erantzuten dioten kirol-ikuskizunak izan daitezke.
- **Asebetetzaile sinergikoak:** Premia jakin bat betetzeko asmoa dute eta, aldi berean, beste batzuk modu positiboan asetzen laguntzen dute. Adibidez, elikadura osasuntsuak biziraupena asetzen du eta, aldi berean, beste behar batzuk betetzen ditu, hala nola atsedena.
- **Sasi-asebetetzaileak:** Ilusio moduan funtzionatzen dute, premia bat asebetetzen dutela dirudi baina ez da egia. Ondasun naturalak gehiegi ustiatzea bizirauteko beharra asetzeko, edo janari txatarra kontsumitzea elikadura beharrari erantzuteko, adibidez.
- **Asebetetzaile suntsitzaileak:** Beharrian bat asetzeko aplikatzen diren arren, bere izaeratik beragatik hura asetzeko aukera suntsitzen dute. Gainera, beste batzuen asebetetzea eragozten dute, esate baterako, babes-beharraren aurrean militarizazioa, segurtasun pribatua eta armen erosketen hazkundera sustatzea. Babesaren beharra asetzeko eskaintzen dena, babesaren aurkakoa da.
- **Asebetetzaile inhibitzaileak:** Behar jakin bat (gain) asetzen dutelako, beste batzuk asetzea eragozten dute. Adibidez, ulermenaren beharra ase nahi duen hezkuntza sistema autoritarioak, askatasun, nortasun, sorkuntza eta partaidetza premiak oztokatzen ditu.

Asebetetzaile gehienak *sasi-asebetetzaileak*, *asebetetzaile-inhibitzaileak* eta *asebetetzaile-suntsitzaileak* izan daitezkeela ikusteak, beharrak asetzeko beste modu batzuk bilatzera behartzen gaitu. Behar, ekoizpen, asebetetzaile eta kontsumoaren inguruan hausnarketa kritiko bat egiteko premia dugu.

Dirutik eta kontsumismotik at, bizitzako beharrak kudeatzeko arloan emakumeok* egiten dugun ordaindu gabeko lana giltzarria izan da eta da. Ordaindu gabeko lan hau funtsezkoa izan da ekoizpen-prozesu kapitalistarako, lan-indarraren erreprodukzioa bermatu duelako; eta aldatzen bada (kontsumoa bezala) eta beste logika batzuetatik planteatzen bada, gaur egungo sistemari eusten dioten zutabetan erroko aldaketak eragingo ditu.

Kapitalismo neoliberala gure bizitzetan

Kapitalismo neoliberala, sistema patriarkal eta kolonialarekin estuki lotuta, modu ezberdinetan agertzen da gure bizitzetan. Emakume*, ondasun komun eta *Homo Economicus*-aren aurrean, bestelako gisa irakurtzen den orok mendekotasun modu bereziak pairatzen ditu. Honegatik, merkatu irekiera, lan-malgutasuna, pribatizazioak, produktibitatea eta kontsumismoa emakumeon* bizitza eta gorputzetatik interpretatu behar dira, neoliberalismoak bereziki eragiten digulako eta honen aurrean bizirauteko estrategiak hedatzen ditugulako.

Truke-harreman gehienek monetizazioak eta oinarritzko eskubideen galerak egunerokotasuneko harremanak sakonki aldatzen dituzte. Lurraldeetan, komunitateek bide berriak sortu behar ditugu berehalako bizi-premiak konpontzeko. Emakumeok* gara prozesu horien buruan egon ohi garenak, komunitate-sarearen protagonistak garelako eta askotan komuna dena kudeatzen dugulako.

Kapitalismo neoliberalan sakontzeak, lan, ahalegin eta zama gehiago dakartzkigu emakumeoi*. Badirudi, historikoki bizitza zaintzea esleitu zaigunez, gu garela besteak beste uraren eskasari aurre egiteko, osasun-zerbitzuek jada ordaindu ezin dituzten zaintzei aurre egiteko edota elektrizitatearen kostuei aurre egiteko zereginak hartzen eta estrategiak bilatzen ari garenak. Honek guztiak lan karga handitzen digu bizitzaren erreprodukzioa konpondu ahal izateko. Bestalde, biztanleriaren ehuneko handi bati eta, bereziki, emakumeoi* eragiten digun langabeziak diru-sarrerak sortzeko iturri berriak bilatzera behartzen gaitu, nagusiki sektore informalean dauden iturriak, bermerik eta soldata-egonkortasunik gabek.

Ondasun naturalak suntsitzea sistema kapitalista-neoliberalaren logikaren ondorio da. Ikus dezagun orain, lau auzitan, betaurreko moreak jantzita ditugula, politika horien atzean zer dagoen:

- **Ura.** Sistemaren egitura harrapariaren ondorioetako batzuk baino ez dira ur-iturrien xahutzea, lurzoruen kontserbazio eskasa edo kontserbazio eza, akuiferoen kutsadura eta ekitaterik gabeko banaketa ereduak, bai kantitateari dagokionez, bai kalitateari dagokionez ere.
- **Energia elektrikoa.** Beste gai nagusi bat energia da. Energia elektrikoa bereziki funtsezkoa da ekoizpen-maila handietarako. Nazioz gaindiko enpresek energia-hornidura behar dute kokatzen diren lekuetan, industriagune eta komertzio guneen funtzionamendurako. Eta kapitalari ez zaio komeni energia ekoizpena publikoa izatea hau sortzea eta banatzea negozio bat delako. Energia elektrikoaren pribatizazioa merkataritza-itunen


bidez sustatu zen eta hau egikaritu ahal izateko, beharrezko erreforma legalak egin ziren.

- **Jakiak.** Hauen ekoizpen eta merkaturatzea beste negozio handietako bat da eta nazioz gaundiko enpresek dute monopolioa. Aipatu enpresak mundu mailako nekazaritza eta abeltzaintza ekoizpenaz jabetzen doaz, milaka nekazari lekualdatuz, haziak pribatizatuz eta hauen ugaltzeko gaitasuna eragozteko genetikoki aldatuz. Lurrak ez ditu ez monolaborantza ezta agrokimikoak maite. Laboreen aniztasuna eta bere erritmoa errespetatzea behar du. Elikadura-eredua jasanezina bihurtu da ingurumenari eta animalioi (pertsonak barne) dagokienez.
- **Lurra eta haziak.** Elikadura burujabetza eza, lurra eta haziak eskuratzeko zailtasuna da. Garapen zalekeriak eta nekazaritza esportazioak milaka nekazari nazioz gaundiko enpresetan soldata-pean lan egitera bultzatu ditu. Lurra jabetza gutxiren eskuetan pilatu da, eta erregai zein mega-proiektuetara bideratu. Haziak diren ondasun komuna, desjabetu egin dira.

Bioaniztasun bereziki aberatsa duten lurraldeek eta pobretze maila altua duten landa komunitateek jasaten dute mega-proiektu horien eragin nagusia. Jendarte eta ingurumenaren gaineko inpaktu bortitz eta ondorio atzeraezinez ari gara.

Gure bizitzetan aldaketak proposatzen joateko, burujabeago, arduratsuago eta eko-interdependenteago diren beste praktika batzuk identifikatu eta ber-sortzeko, dena ber-dimentsionatzea premiazkoa da.





Kapitalismo neoliberala Euskal Herrian

Pairatzen ari garena ez da soilik finantza krisi bat, dimentsio anitzeko krisia da hainbat ertz hartzen dituelako: ingurumena, erreprodukzio soziala, zaintza, elikadura eta energia, besteak beste. Eta honegatik diogu sistema androzentriko, antropozentriko eta biozida honek bere burua suntsitzen duela. Kapitalak zaintzeko eta bizitzari eusteko duen ezintasunak eragindako larrialdi sakon batean gaude.

Euskal jendartea astintzen duen zainketa-defizitak, honako ezaugarriak ditu: adineko pertsonen tasa handia, emakumeon* bizimoduen aldaketak, gizonezkoek beren erantzukizunetikiko utzikeria, lan-prekarizazioa eta politika publiko ahulak.

Zainketen azpiegitura publikoari dagokionez, Mugimendu Feministak eskatzen zuen mendekotasuna artatzeko euskal sistema publikoa zutik jarri ez izana ez da kasualitatea. Emakume* migratuak modu prekarioan kontratatuz estali zen beharra. Baina honetaz gain, ez zen zalantzan jarri “sostengatzaile maskulino/mendeko emazte” eredutik abiatzen den gizarte-segurantzako sistema, emakumeok* gizonekiko dugun mendekotasun rola betikotzeko joera duena.

Testuinguru honetan, lanaldi bikoitzeko edo hirukoitzeko egoerak areagotzen dira emakume* askorentzat, oro har, soldatapeko lanez gain, familiako zaintza-beharrak gure gorputzen gainean hartzen ditugulako. Zaintzaren azpiegitura publiko eskasa murriztean, erantzunkidetasun sozialaren ereduari uko egiten zaio. Lan erreproduktiboa eta etxeko lana ekitatez banatu gabe daude oraindik. Euskal Herrian emakumeok* lan-merkatu formalean sartzeak, ez zuen gizonek etxeko lanaren eta zaintzaren arloan zituzten erantzukizunak beren gain hartzea suposatzen.

Lurralde honetan, zaintza-krisiak, erreprodukzio sozialaren krisiak eta (des) zaintzetako kate globalek kapitalismo neoliberalak, patriarkala eta koloniala osatzen dute. 2007-2008 baino lehen, euskal ekonomia europar batasunean sartzeko prestatzen ari zen, eta euskal burgesiak hainbat apustu egin zituen. Besteak beste, hotelen, arkitekturaren, hirigintzaren, museoen, azpiegitura eta garraio lanen, teknologia berrien eta komunikazioen makro-proiektuen abangoardian kokatzeko pausuak eman zituzten.

Paraleloki, arlo sozialari lotutako administrazio publikoaren dimentsioetako batzuk murrizten joan ziren. Horrela hasi zen, hemen ere, lehen aipatu ditugun politika austerizida asko aplikatzen. Eszena, erreprodukzio sozialaren krisialdia da. Eta aldi berean, merkataritza eta inbertsio akordioen uhin berriarekin lotutako politika neoliberalak sakontzen ari dira.

Horren guztiaren aurrean, emakumeon* bizitza eta gorputzetan lan, esfortzu eta denbora gehigarriak suposatzen dituen bizirauteko estrategia anitz zabaltzen dira. Euskal Herrian ere, partxeekin estaltzen ari gara kapitalaren erasoak.



III. MODULUA:

Emakumeok* diru sarrerak sortzeko ekimenak

MODULUAREN DESKRIBAPEN OROKORRA

Hirugarren modulu honetan, ezagutzak taldean ekoizteko prozesuan aurrera egingo dugu. Kasu honetan, bizirauteko diru-sarrerak sortzeko eratzen ditugun esperientzien eta gure kontsumo ohituren inguruan jardungo dugu.

Gure kontsumo-ohiturak, askotan, diru-sarreraren mailarekin lotzen dira, baina ez dute nahitaez bizi-kalitatea edo bizi-premien konponbidea adierazten. Eta aldi berean, kontsumitzeko ahalmena izateko gure denboraren zati handi bat (bizitza ez esatearren) soldata bat sortzen ematen dugu.

Diru-sarrerak sortzea eta kontsumitzea bizirauteko estrategiak dira, eta horiek planteatzeko moduaren baitan, erresistentzia izan daitezke. Ekimenak idealizatu eta epaitu gabe. Beste zentzu eta esanahi batzuk birstortzen ditugu kontsumitzeko eta diru-sarrerak lortzeko praktika alternatiboekin. Horiek berrikusi nahi ditugu, beste begirada, kontakizun eta narratiba kolektibo batzuk eraiki ahal izateko, gure bizi-egoeretatik abiatuz, hauek aldatzeko asmoz.

Lanaren, zainketen eta beharren arteko harreman konplexuaz eztabaidatzen jarraituko dugu; gure bizitzetatik abiatuz, kontsumoaren esperientzien eta emakumeon* diru-sarrerak sortzeko ekimenen bitartez.

Kapitala eta bizitzaren arteko gatazka larriagotzen denean, familiei eusten saiatzen gara eta testuinguru horietan, diru-sarrerak sortzeko ekimenak berehalako beharrak asetzerara bideratzen ditugu. Baina askotan, gure bizitzak ez hobetzeaz gain, (kapitalismoarentzako funtzionalak izan daitezkeen) kargak gehitzen dizkigute.

MODULUAREN HELBURU NAGUSIAK

Modulu honetan, emakumeok* egiten ditugun kontsumo-praktikei eta diru-sarrerak sortzeko ekimenei buruzko gogoeta kritikoa egin nahi dugu, Ekonomia Feministaren ikuspegitik. Hauek lirakeke helburuak:

- Kapitalismo neoliberalari eta patriarkatuari aurre egiteko proposamenak eraikitza hurbiltzen diren ekoizpen, merkaturatze eta kontsumo esperientziak ezagutzea eta jendarteratzea.
- Esperientzia ekonomiko pertsonal eta kolektiboetan aplikatzeko tresna kritikoak ematea.
- Erresistentziako praktika ekonomikoak eraikitzearen arabera berriku daitezkeen bizitza pertsonaleko, antolakuntzako eta diru-sarrerak sortzeko eremuak hautematea.

Kontsumoa Ekonomia Feministaren ikuspuntutik

Muntai gaiztoa

Merkataritza askearen paradigma, fase neoliberallean den sistema kapitalistaren oinarrietako bat da. Haren aginduek, legeek eta dinamikek munduko jardura ekonomiko osoa digitalizatu eta aldatu dute, lurralde-eskala eta ekoizpen-sektore guztietan. Nazioarteko merkataritzaren hedapenak eta ia denbora errealean ematen den ondasun eta zerbitzu mota guztien zirkulazioak, munduaren hiper-interkonexioan sakontzea eragin dute.

Botereak, ditugun ondasun mugatuak kontzentratzeko, metatzeko eta kudeatzeko gaitasuna du. Eskasiaren ideia kontrolatu eta berau eraikitzearen gainean altxatzen da boterea. Klase herrikoioek, geure mendekotasuna iraun arazteko baliagarriak diren fikziozko beharrak txertatzen ditugu egunerokotasunean. Beti nahi dugu gehiago, inoiz ez da nahikoa. Eskasiaren ideia pilaketaren bidez agertzen da, eta sakonki jarduten du kontrol-gailu gisa.

Berehalakotasuna eta merkantilizazioa dira, ziurrenik, bizi dugun une honen ezaugarrietako bi. Transakzio eta informazioak denbora errealean ematea ezinbestekoa da, eta denbora hauen kudeaketaren kontrola duenak du boterea. Bitartean, denboraren logika lineal eta iheskorra nagusitzen da gure bizitzako une bakoitzean. Erosten edo saltzen dugunean baino gehiagotan. *“Justu garaiz”* metodoak bizi-denboretan etengabeko produktibitatearen logika txertatuz

jarduten du. Honek, emaitza azkarrak eta ikusgarriak etengabe bilatzeari lotutako denbora logika zorabiagarria naturalizatzen du. Emakume* garen aldetik, ez gaude guzti honetaz salbuetsita. Denboraren logika hori nola iragazten zaigun pentsatzea oso interesgarria da, enplegu-kontsumoaren gurpilean harrapatuta zenbateraino gauden behatzea.

Beste berezitasun bat dena salgai bihurtzeko joera da. Merkantilizazioak monetizazioarekin lotura estua duenez, trukea diruak baldintzatzen du beti. Dena eros edo sal daitekeen merkantzia bihurtzen da. Preziorik ez duenak baliorik ez duela dirudi eta saldu daitekeenak bakarrik balio du. Bizitzak, gorputzak, organoak, oxigenoa, ura, mineralak, gizakiaz besteko animaliak, komunitate osoak... berdin dio. Merkataritza-dinamika eta pertsonen kontsumo-praktiketan nagusitzen den irizpidea ez da izaten bizi-premia.

Behar dena baino gehiago kontsumitzen da

Kontsumoa sistemaren oinarrietako bat da. Beharrak asetzeko erostera behartuta gaudela sinetsi dugu eta tranpa, kontsumoaren eta kontsumismoaren arteko muga porotsuan dago. Erosten dugunetik zenbat da benetan behar duguna? Zer behar dugu bizitzeko? Zer sostengatzen dugu (eta zer ez dugu sostengatzen) gure kontsumo-ohiturekin? Gauzak dauden bezala, ondasun eta zerbitzu jakin batzuk eskuratzeko ezinbestekoa da merkatura jotzea. Baina horrek ez du esan nahi kontsumoaren gatibu izan behar dugunik. Pertsonak eta komunitateak eko-interdependenteak gara, inor ez da buruaski edo autarkikoa.

Aukeren gainetik eta beharren aurka ekoizteak, polarizazioa eta ezberdinkeriak sortzen ditu izakien artean. Lur-planetan, dagoeneko, ur eta oxigeno erreserbak gaindituta daude. Gure aukeren gainetik kontsumitzearekin, planeta hondatzen ari gara. Dagoeneko agortu dugu planetaren materia erabilgarria (ura, adibidez), energia-iturriak (petrolio, adibidez) eta naturak xurgatu ezin duen zaborrez beteta dugu mundua. Planetak hondakinak prozesatzeko duen gaitasuna kolapsatua dago.

Badira gure kontsumoaren abiaduran birsortzen ez diren ondasun komun berriztagarriak, zuhaitzak kasu. Amaitu egiten dira. Badira inoiz birsortuko ez direnak ere, eta sinpleki agortu egiten direnak. Petrolio adibidez. Honen erauzketak muga bat du, eta jada agortu dugu muga hori. Guzti honegatik diogu planetak, kapitalismoak ukatzen dituen muga fisikoak dituela. Sistema kapitalistak, bere fase neoliberealean, eko-interdependentsia ez dela kontuan hartzen, sistema biozida dela.

Behar ez diren ondasunak sortzen dira. Esklabotza-baldintzetan lan egiten duten herriak eta komunitateak espoliatzen eta ustiatzen dira, lurralde faboratuetan kontsumo-maila jakin batzuk mantentzeko. Luxuzko asebetetzailleak gutxiengo aberastuek merke erosten dituzte. Kontsumoak elementu artikulatzaile gisa funtzionatzen du, *quo estatusa* egonkortzen duen argamasa gisa.

Emakumeok* rol garrantzitsua betetzen dugu kate honetan. Emakumeok* asetzen ditugu kontsumoak estaltzen ez dituen beharrak lan prekario, ikusezin, feminizatu eta monetizatu zein legalizatu gabekoekin. Baina kontsumismo ohitura batzuk ere geureganatzen ditugu eta modetara are gehiago hurbildu, emakume-objektuaren irudira adibidez.

Emakumeok* diru sarrerak sortzeko ekimenak

Emakumeok* diru-sarrerak sortzeko ekimenez ari garenean, diru-sarrerak, ondasunak eta/edo baliabideak sortzeko erabiltzen ditugun estrategia guztiez ari gara. Aipatu ekimenak, prozesu konplexuak eta dinamikoak dira, pertsonalak eta/edo kolektiboak eta biziraupenari lotuak. Eskasia egoeren esparruan, lankidetzak logikak garatu ohi ditugu biziraupenari begira. Komuna kudeatzen da ekimen hauetan maiz, askotan estaldurarik gabe eta merkatu-ekonomiak abandonatutako eremuetan.

Euskal Herrian, badira biziraupen hutsagatik ekimen hauek martxan jartzen dituzten emakumeak* (emakume* migratu asko edo langile klasekoak), muga-mugan daudenak. Gero eta kopuru handiago batentzat da aukera bat hau, besteren konturako soldatapeko lana desagertzeko joera dagoen testuinguru honetan. Lehen, Europan, enplegu bat aurkitzea genuen buruan. Orain emakume* gero eta gehiagok egiten diogu uko horri, eta geure lana asmatzen dihardugu.

Diru-sarrerak sortzeko ekoizpen-esperientziak

Ezkutuko ekonomiaren esparruan eta a-legezko lan baldintzetan egiten diren ekimenen elementu komun gisa nabarmentzen dira: lan intentsiboa, eskulan feminizatua eta kapital-inbertsio txikia edo nulua. Zati handi bat elikadurarekin, jantziekin eta adinekoen eta/edo adin-txikikoen zaintzarekin lotuta dago. Kasu hauetan, lanaren prestaketa tekniko urria edo hutsala da eta oso teknologia gutxi erabiltzen da. Prozesuak emakume* batek edo gutxik eramaten dituzte aurrera eta denbora gutxi ematen dute etxeko lanetik, zaintza lanetatik eta izan ditzaketen beste enplegu prekarioetatik kanpo. Lan hauek leku ez-ohikoetan garatzen dira: etxebizitza eta sukaldeetan maiz. Ekoizpen-zirkuitua hurbilekoa

izaten da: auzoa, plazak, komunitatea... eta espazio publiko komunetan merkaturatu ohi da, non sortutako ondasun, zerbitzu zein estrategiak elkarbanatzen diren.

Nahiz eta metaketaren, espekulazioaren eta onuraren logikak iragazten diren, ez dira funtsezko irizpideak. Garrantzitsuagoa da beharrak asetzea, bizitzak eta bizi-sarea ekoizten eta mantentzen jarraitzeko beharrezkoa dena irabaztea. Erreproduzio-krisiari erantzuten diote.

Zuzeneko salmentako esperientziak

Hauen ezaugarri nagusien artean, azpimarratzekoa da banaka egiten dela. Katalogo bidezko salmentak etxeko espazioetan, espazio informaletan eta neurri handi batean feminizatueta egiten dira. Ondasun eta zerbitzu jakin batzuk izan ohi dira, batez ere kosmetikarekin, barruko arroparekin, etxerako tresnekin, lurrinekin eta abarrekin lotutakoak.

Ohikoa izaten da nazioz gaindiko enpresa handientzat lan egitea. Lan-eskubiderik gabe eta denboraren dedikazioari, higadura pertsonalari eta inguruneari kostu handiak eraginez jarduten da, jendartean eta ingurumenean eragin handia duten produktuak izaten baitira.

Lehen erresistentzia-maila bati erantzutea da beren ekarpen nagusia, haien funtsezko beharrak eta haiek osatzen dituzten pertsonen bizi-proiektuak martxan mantentzen saiatzen baitira. Hala ere, erresistentzia ez da nahikoa. Prekarizazioaz ari gara, hau da, diru-sarrerak sortzen dituen lan horrek ez du emakumeon* lan-eskubiderik eraikitzen. Etxeko lanak eta zaintza-lanak bezala, herrialdeen barne-produktu gordinean ekarpena egiten dute, baina kontabilizazioa eta ikusgarritasuna oso eskasa da. Herrialde gehienetan etxeko lanak eta zaintza-lanak ez dira zenbatu ere egiten.



Emakumeek* diru sarrerak sortzeko ekimenak, atzekoz aurrera begiratzen

Prozesuak nola garatzen diren, behar ditugun diru-sarrerak sortzeko zer egiten ari garen (eta zer ez) xehe-xehe begiratzea da susmometroa aplikatzea. Bide horretan, biziraupenekoak baino ekimen emantzipatzaileagoek zer praktika eta dinamika eskaintzen dituzten identifikatzen saiatzen gara. Zentzu horretan, garrantzitsua da argi izatea kontua ez dela esperientziak ezta emakumeak* epaitzea. Testuinguru eta bitartekoek ahalbidetzen dutena egiten dugu.

Erresistentzia epistemologikotik, etikotik eta politikotik sentitu eta pentsatu nahi ditugu. Hau da, ahal dugun guztia ikastea eta zertan ari garen jakitea, emakume* gisa banaka eta taldeka horrelako ekimenetan murgiltzen garenean. Horretarako, Ekonomia Feministak proposatzen dituen zenbait jarraibide iradokitzaileak zaizkigu.

Susmometroa aplikatzen

Esperientzia horiek kritikoki berrikusteko zenbait adierazle ditugu. Batetik, zapalkuntza dinamikak iraunarazten dituzten dinamikak identifikatu ahal izateko eta hauetan eragin ahal izateko. Bestetik, sistemarekiko disruptiboak izan daitezkeen gakoetan ondo egiten ari dena detektatzeko eta sustatzeko.

- **Lan mota.** Garrantzitsua da ekimen indibidual zein kolektibo horien ezaugarri den lan-motari buruz hausnartzea.
- **Baloratzeko zailtasuna.** Pentsatzeko beste elementu bat, ekimen horietan egiten diren lan mota guztiei balioa eta prezioa jartzea da.
- **Lan-baldintzak.** Produktuak egiteko edo salmentan eskaintzen diren zerbitzuak emateko erabiltzen diren giza, bizi eta natura baldintzak, intsumoak eta lehengaiak kontutan hartzea.
- **Lanaren antolamendua.** Lanaren antolamenduari dagokionez, garrantzitsua da jakitea lanaren banaketa teknikoa eta/edo sexuala dagoen.
- **Ordutegiak eta lanaldiak.** Egunean, astean edo hilean zenbat ordu lan egiten den jakitea eta zaintzea.
- **Teknologien erabilera.** Lana egiteko teknologia ezberdinen erabileraren eta hauen kalitatearen inguruan ere hausnartu daiteke.

- **Azterna ekologikoa.** Ekimenen ondasunak edo zerbitzuak ekoizteko behar diren input guztietan pentsatu behar da. Hau da, gure lanak planetako bizimoduetan eta ber-sortzeko gaitasunean duen eraginean.

Gu eta dirua

Diruak zeharkatzen duen mundu batean bizi gara. Gustatu ala ez, egiten diren transakzioen eta pertsonen arteko harremanen zati bat, diruarekin lotuta dago. Bizitzeko ondasun eta baliabide jakin batzuk erostera ia behartuta gaude. Baina honetaz gain, kalkuluaren eta onuraren araberrako eskaintza eta eskariaren logikak jendarte-iruditerian sakonki barneratua daude eta gure nahi eta praktiketan eragiten dute. Hau errealitate bat izateak, ez du esan nahi horrekin ezer egin ezin dugunik. Diruak gure bizitzetan duen presentziak (nola, non eta zenbat) eta diruarekin harremantzeko dugun moduak antzematea urrats garrantzitsua da. Batetik, logika horiekiko gatibu garen ala ez jakiteko. Bestetik, diruarekin bestelako harremanak sortzen joateko.

Dirua baliabideak eta ondasunak eskuratzeko bitarteko bat da. Hala ere, horiek erosteak ez du esan nahi beti bizi-premiak asetzen direnik, baizik eta batzuetan guztiz kontrakoa, ikusi den bezala. Bestalde, ondasun guztiek ez dute, nahitaez, diru-merkatuaren zirkuituan egon behar. Garai batean, ez zeuden. Pribatizazio-prozesuen bidez uraren, luraren, airearen eta hazien merkantilizazioak, logika horren parte ez ziren eta zertan izan behar ez duten ondasun komun asko, ustiatu beharreko baliabide bihurtzea ekarri zuen. Era berean, azken hamarkadetan aisiaren, harreman askoren, zaintza eta auto zaintza lan askoren merkantilizazioa indartu da (ilea ile-apaindegian tindatzetik, manikurara, etxetik kanpo jatera, etb...).

Kontsumo-jendarte baten parte garelako diogu diruak jendarte-ima-jinarioan, gure subjektibotasunetan eragiten duela. Moneta, jendarte-eraikuntza bat da, eta zentzua du jendarte gisa ematen diogun neurrian. Baina sistema kapitalistaren esparruan, diruak berez du balioa eta ondorioz balioa ematen dio dirua duenari. Aberastasunaren ordezkari materiala da eta boterea sortzen du. Kontsumoak pertsona, komunitate eta lurralde bakoitzari estatus bat ezartzen dio. Kontsumitzeko gaitasun handiagoa duenak botere, aintzatespen eta ikusgarritasun handiagoa ditu. Kontsumismoa eredu morala da, ideologia. Kontsumitzen ez duenak ez du eskubiderik.

Diruak gobernatzen duela esaten da. Kapitalismoaren beste erakunde nagusietako bat da, batez ere bere fase neoliberalean. Zerbitzu publikoen pribatizazio prozesuek zorpetzearen mentalitatea eta diruarekiko mendekotasun geroz eta handiago eragiten dute. Era berean, espekulazio finantzarioaren,

espoliazioaren eta arpilatzearen bidez, diruak diru gehiago sor dezakeela sinestarazi digute.

Erakunde sozial gisa, dirua ere sexuduna da eta boterearen, publikoaren eta maskulinoaren aldean dago. Gizonek oparotasun eta independentziarekin lotzen dugun dirua administratzen dute. Hau errurik gabe eta beren nahien arabera eskuratu eta erabiltzeko ahalmena dute.

Emakumeok* ez gara dirua maneiatzeko heziak izan, ezta honen inguruan erabaki edo gozatzeko ere. Monetarekin dugun harremana etxeko administrazioarekin lotzen da, bizi beharrak asetzeko aurrekontu txikien kudeaketarekin. Beti eskasian, ingurune hurbilaren beharrak asetuz. Dirua beste era batera erabiltzen dugunean, sozialki ezarri zaizkigun rolekin hausten dugu. Gure gaitasun afektiboak zalantzan jartzen dira. Emakumeoi* maitasuna dagokigu, ez diruarekiko interesa. Emakumeok* diruarekin dugun gatazka ez da lanaren truke irabazteko zailtasunetara ezta honekin dugun harremanean sentitzen ditugun erru eta lotsara soilik mugatzen. Autonomiaz eta askatasunez erabiltzeko dugun gaitasun eza ere biltzen du gatazkak.

Gure autonomia eraikitzeko, diruaren eskuragarritasuna eta erabilera berreskuratzea oso garrantzitsua da. Baina ez dezagun hori zoriontasunarekin nahastu. Dirua eskuratzea eta administratu ahal izatea tresna bat da, gogobetegarria, eta gauza jakin batzuk lortzea ahalbidetzen digu. Baina, berez, ez da bizi-premia bat.



IV. MODULUA:

Erresistentziako Esperientzia Ekonomikoak, Emakumeongandik*

MODULUAREN DESKRIBAPEN OROKORRA

Laugarren modulu honetara iritsita, landutakoa aplikatzeko apustua biderkatu egiten da. Gogoetatik salto egiten dugu, itxuraz partikularrak diren gure bizitza-egoeretatik abiatuta ekimen kolektiboen sorkuntza aktibatzeke.

Erresistentziaz ari gara, esperientzia horiek beren indar emantzipatzailetik, eskolan identifikatutako *Hausturaren Ekonomia Feminista*-ren tresna kritiko-politikoetatik begiratzea interesatzen zaigulako. Erresistentziaz ari gara hainbat dimentsiotan hedatzen den prozesu eta estrategia kolektiboaz ari garelako. Gako politikoan, erresistentzia iritsiera-horizontea eta orainaldia berrikusteko tresna delako. Erresistentziak errebeldia antagonikoa moduan, egoera posible zehatz eta sinboliko berriak hedatzen ditu. Eta aldi berean egoera-taktika bat da, lubaki-guda bat. Hartzen ditugun lekuetatik erresistitzen dugu, egiten dugunarekin (eta egiten ez dugunarekin). Mesoamerikarrek erresistentzia epistemologikoaz hitz egiten dute ezagutza eraikitzeke modu hegemonikoei aurre egiten diogunean, sorkuntza prozesuaren protagonistatzat geure burua kokatzen dugunean eta mugiezintzat aurkezten zaiguna zalantzan jartzeko autoritatea hartzen dugunean.

Erresistentziako gure esperientzia ekonomikoak idealizatu eta estigmatizatu gabe aztertzen ditugu. Prozesuen ikaskuntzak interesatzen zaizkigu, hauek jendarteratzea, erronkak eta horiek kudeatzeko moduak partekatzea.

MODULUAREN HELBURU NAGUSIAK

- Diru-sarrerak sortzeko ekimenetan balizko erresistentziak hauteman eta indartzea.

Emakumeon* ekonomia esperientziak

Ekonomiari buruzko ikuspegia zabaltzean, orain arte kontuan hartu ez diren prozesuen multzo oso bat hartzen da kontuan esperientzia ekonomikotzat. Zirkuitu monetario formaletik kanpo, balioa sortzen duten lan, denbora eta ahalegin ugari ditugu sakonki ekonomikoak diren arren, halakotzat hartzen ez direnak.

Lan horiek guztiak arlo ekonomikoaren baitan aitortzearen garrantziaz dihardugunean, ez diogu diru, finantza eta espekulazioaren parametroen pean subsumitu behar direnik. Izan ere, bizi-premiak merkantilizatuz, zainketak salgai bihurtzen dira. Zentzu berean, konponbidea ez da emakumeok* sisteman gehitzea, guztiaren oinarri diren sustraiak zalantzan jartzea eta aldatzea baizik.

Denok behar ditugu intentsitate desberdineko zaintzak, bizitzaren une ezberdinetan. Eta lan hauek guztien artean landu eta banatzea da gure apustua. Zainketez hitz egitea horizontaltasunaz eta justiziaz, sinergieztan eta biziraupenaz hitz egitea da. Planetan milaka urtetan zehar ura, oxigenoa, bioaniztasuna, koloreak, mineralak eta lurra ekoiztu diren arren, gizakia erdigunean eta gainerako guztiaren gainetik jartzen duen lanaren kontzeptu antro eta androzentrikoa errepikatzen jarraitzen dugu. Horrek eragin zuzena du produktuen eta lanaren balioa ulertzeko moduetan, baita bizitzaren dimentsio guztietan eta zainketen ikuspegian ere.

Emakumeon* erresistentzia esperientzia ekonomikotzat hartzen ditugu gure botereak eta aukerak indartzen dituzten ahalegin kolektiboak. Mesoamerikarrek dioten bezala, lan, botere, zaintza, jakintza eta ondasunak mugitzen, sortzen, ber-sortzen eta banatzen dituen *erresistentzia eraikitzaileak* dira. Amorrutik antolaketara salto egiten duten esperientziak dira, beldur eta inpotentziak deseraiki eta emakumeon* artean harreman politiko berriak eraikitzen dituzte. Gutxiago lan egiteko eta gehiago zaintzeko autonomia eta eko-interdependentsia eremuak dira.

Barruan daramagun munstroa: matrize koloniala apurtzea

Ideiak ere eztabaida-eremu dira. Irudikapenak, zentzumenak eta pentsamoldeak barneratzea da menderatze modernoaren kontrol ideologikoko gailurik boteretsu eta konplexuenetako bat. Bide bakarraren ideia pean, kapitalismo neoliberalak aukera posible bakarra zela esan zitzaigun eta menderatuok gutxiagotasuna geure gain hartu genuen.

Barruan daramagun matrize koloniala apurtzea ez da erraza, hainbat pribilegio berrikusi eta kentzea eta erosotasun-eremu batzuetatik irtetea esan nahi duelako. Baina pentsamendu eta ezagutza egituretatik ere matxinatzen gara, buruko lubakiei erasotzen ez badiegu, aldaketek makillaje hutsa izateko arriskua dutelako.

Beste praktika sozio-ekonomiko batzuk sortzeaz gain, gure erresistentzia-esperientziei esleitzen dizkiegun sentimendu eta edukiak desberdinak izan nahi dute. Zentzu honetan, bizitza sarearen erreprodukzioaren kudeaketa nola lantzen ari garen politizatzea eta eztabaidaren ardatz gisa jartzea da gure erronka nagusietako bat.

Historiaren zentzua zalantzan jarritz

Kolonialismoak lurraldearen konkista barne hartzen du, baina baita denborarena ere. Honen kiribiltasun, errepikakortasun eta aldiberekotasuna ulertzeko moduak ordezkatu zituen inperialismoaren denbora-logikak. Hots, euro-erdigunearen paradigmak tokiko historiak asimilatu zituen. Denboraren konkistak iragan, orainaldi eta etorkizunaren artean hausturak eragin zituen. Eta denboraren logika produktibistaren baitan diziplinatu gaitu, zeinak garaiz iristea, garaiz amaitzea eta denborarik ez galtzea mandatu inperatibo moduan ezarri ditu.

Begirada dekolonialak denboraren konkista, aurrerapena eta garapena deiturikoak zalantzan jartzen ditu. Denbora, erritmo kiribilduak dituen prozesu gisa planteatzen du, aurrerapen eta moteltze (ez porrot) une elkarlotuekin. Begirada honen arabera prozesuaren zati guztiak beharrezkoak eta garrantzitsuak dira ibilbideak berrikusteko, ezagutzeko eta elikatzeak aukera ematen digutelako.

Historiaren zentzua zalantzan jartzea bizitzaren dimentsio guztiei buruz hausnartzea da. Ondo bizitzeaz ari garenean, amaierarik ez duen prozesu bati buruz ari gara, etengabe hedatzen, ber-definitzen, eraikitzen eta ugaltzen ari denari buruz.

Gure inguruan hitz egin

Munstroa desegin eta historiaren zentzua apurtzean, ez dira soilik esleitzen zaizkigun eta betetzen ditugun rola agerian geratzen. Mugatzen gaituen super-estruktura ere ikusgarri bilakatzen da. Eragile zein norbanako aktibo gisa mugitzeko gaitasuna eta itxuraz mugiezinak diren egoerak aldatzea posible dela ere agerian geratzen da.

Beste narratiba batzuk eraikitzeke gaitasuna onartzea erresistentzia eta errebeldia ariketa bat da. Gugandik hitz egitean, orain arte ukatu zaizkigun lekuak gureganatu eta indarrak hartzen ditugu.

Emakumeon* esperientzia ekonomikoaren ezaugarriak

Ekonomia Feministaren proposamenak dakarzkigun irizpideak kontutan hartuta, emakumeok* antolatutako ekimen ekonomikoak xehatzea, ariketa interesgarria da esperientzia horiek zein neurritan eta modutan emantzipatzaile izan daitezkeen (edo ez) ikusteko. Baina ez dugu neurrak bitarra erabiliko honetarako. Izaera emantzipatzailea ez da gai jakin baten presentzia edo absentiaren baitan definitzen. Honako premisatik abiatzen gara: elementu askok zeharkatzen dituzten eta batzuk elkarren artean kontraesankor diren esperientzia konplexuek ari gara. Zer esan nahi du honek? Elementu, dinamika eta praktika askatzaileak aurki ditzakegula, bai eta eraldatu nahi dugun hori ber-sortzen duten balioak, ekintzak eta iruditegiak ere.

Esperientzia ekonomikoek erresistentziaruntz biraketa bat egitea ahalbidetzen dute lanen, zainketen, ekoizpenaren, merkaturatzearen, banaketaren, trukearen eta kontsumoaren antolakuntzaren baitako jarraibideak berrikustea. Ez dago inorgueu baina proposagorik, prozesu horien zentzu politiko-emantzipatzaileez jabetzeko eta egiten dugun hori kritikoki behatzeko. Gainera, gogoeta egiteko gaitasuna geure gain hartzeak indartu egiten gaitu.

Antolaketa kolektiboa

Esperientzia horiek zentzu politiko-apurtzailea izan dezakete, sistema neoliberal eta patriarkalaren aginduak hausteko potentziala dutelako. Beste antolaketa-modu batzuen alde egiten duten eta sormen zein eratze ahalmena duten ekintza kolektiboak dira. Alternatiba hauetan, emakumeon* arteko antolaketa kolektiboaren zentzu politikoa nabarmentzen da. Diru-sarrerak sortzea bilatzen dute, baina ez dute azken helburu gisa diru sarrera. Hala ere, oro har hori espero da eta politika publikoetatik ere, mikro-kredituak eta laguntza teknikoa dira eskaintzen diguten gauza bakarra. Emakumeok* ez dugu ez diru ez lan gehiagoren beharrik.

Erresistentzia geruzak

Dinamikoki elkar eragiten duten erresistentzia kultural, etiko eta ekonomikoak nabarmentzen dira:

- **Erresistentzia kulturalak.** Kolonialitatearen matrizea hausten dute, kulturak eta mundu ikuskerak balioetsiz, berreskuratuz eta berradieraziz.
- **Erresistentzia etikoak.** Ideien, balioen eta zentzumenen inguruko eztabaidak gure praktikak zeharkatzen ditu eta esperientzia hauek jendarte kapitalista eta patriarkalean eragina dute.
- **Erresistentzia ekonomikoak.** Ekonomikotzat ulertzen duguna zabaltzen dugunean, automatikoki erresistentziarako eremu berriak zabaltzen dira.

Zainketak, auto-zainketak eta ez zaintzeko eskubidea (inor zaindu gabe gera ez dadin)

Eko-interdependente eta zaurgarri gisa hartzen diren erakundeez ari gara. Hauetan, zainketen denborak eta ahaleginak, duten balioagatik, bizi-premia gisa duten garrantziagatik, zenbatu eta aintzat hartzen dira.

Zainketen politizazioa funtsezko antolamendu ardatza da, pertsona guztiok egiten ditugun lan guztiak ikusgarri bilakatzea ahalbidetzen duena. Hala, baldintza berdinetan banatzea atsedena, aisia, gozamina eta prestakuntza pertsonala.

- **Lanaren banaketa sexuala:** Denbora eta lan guztien aitortzarekin lotura estua izanik, lan guztiak modu bidezkoagoan banatu eta berrantolatu behar dira. Esperientzia horien barruan gertatzen den borroka da hau. Askotan,

emakume* garen aldetik, genero-rolekin eta gugandik espero dena betetzearekin lotutako zereginak eta erantzukizunak hartzen ditugu gure gain, “besteentzat” eraikitako izaki gisa. Autosufizientziaren ideal faltsuarekin batera, produktibitatea, lehia, pilaketa eta erritmo azeleratuak barneratzen ditugu.

- **Boterea gugandik eta gure artean:** Esperientzia horiek beste botere baten iturri dira, ez menderatzearena. Sortzen eta askatzen duen boterea da. Botere hori gugandik abiatzen da, bakoitzak bizi dituen bizi-egoera ezberdin eta zehatzetatik. Horien artean zubi konplizeak sustatzen dira eta hauetatik abiatuta indar kolektibo bat hedatzen da, gugandik botere eratzaile bat sortuaz.
- **Gure autonomiak:** Autonomia monetarioa oso garrantzitsua da guretzat, askotan erabakiak hartzeko eta pauso jakin batzuk eman ahal izateko ezinbesteko baldintza baita. Baina dirua edukitzeak ez du nahitaez bermatzen, erabakitzeko, hartzeko eta uzteko ahalmen garrantzitsu hori. Autonomia arlo ekonomikotik harago doan gaitasuna da eta elementu askorekin du zerikusia. Batez ere geure buruarekin eta gure ingurunearekin modu kontzientean eta aktiboan sentitzen eta posizionatzen garen moduekin.
- **Ereitea, praktika mota berriak ernatzeko:** *Hausturaren Ekonomia Feminista*-tik abiatuta modulu hau ixteko eta hurrengoarekin lotuta, zenbait jarraibide eta irizpide aurkeztuko ditugu, esperientzia horiek identifikatzea, laguntzea eta indartzea errazten dutenak.
- **Antolaketa-egitura:** Ekimen horiek egiten dituzten emakume* taldeen antolamenduaren garapenaren maila eta ezaugarriak behatzean, besteak beste, honako hauek har daitezke kontuan:
 - Antolaketa-egitura nola definitu den.
 - Nolakoak diren informazioa jendarteratzeko eta erabakiak hartzeko mekanismoak.
 - Karguak eta erantzukizunak txandakatu eta zabaltzen diren ala ez.
 - Bileren maiztasuna, lekuak eta ordutegiak zeintzuk diren.
 - Parte-hartzaileen bertaratzea, inplikazioa eta parte-hartze aktiboa nolakoa den.
 - Taldeak eta erakundeak egoera pertsonalei laguntzen dioten ala ez.
 - Nork bere burua zaintzeko estimuluak eta baldintzak dituen.
 - Elkar zaintzeko jarduerak antolatu eta gauzatzen diren.
 - Auto-zaintza eta zaintza jardueretarako aurrekontu komunik dagoen.

- Emakumeon* prestakuntza politikorako guneak dauden ala ez eta nolakoak diren.
- Mugimendu Feministarekin eta beste kolektibo batzuekin harremana nolakoa den.
- **Elkarrekiko zainketak eta auto-zainketak:** Erakundearen egituraren pertsonen eta kolektiboaren bizitza zaintzarekin lotutako jarduerak garatzea da helburua. Ondasunak eta lana kolektibora bideratzea esan nahi du, elkar zaintzeari eta nork bere burua zaintzeari begira. Honen baitan, nortasun, afektu, iraupen, babes, sorkuntza eta aisialdi beharren asetzea behatzean, besteak beste, honako hauek har daitezke kontuan:
 - Taldeko pertsonen arteko interdependentzia zaintzea.
 - Gaixotasuna eta osasuna artatzeko denbora eta baliabideen eskaintzea.
 - Lana era bidezkoan banatzea.
 - Ordaindutako zein ordaindu gabeko lan-kopuruaren murriztea.
 - Familia mailako zaintza lanaren eta antolaketa lana aitortzea.
 - Diruaren, denboraren, ondasun komunen eta lanerako dedikazio pertsonal eta kolektiboaren inguruko erabakiak hartzeko autonomia izatea.
 - Aniztasunekiko errespetua (adina, jatorria, kultura, aukera sexual-afektiboa, funtzionala) izatea.
 - Naturarekiko, ingurumenarekiko eta antzinako jakintzekiko armonia eta errespetua aitortzea.
 - Pertsonen arteko harremanak eta ondasunak zaintzeari denbora eta baliabideak eskaintzea.
 - Aisialdi eta atsedeneri denbora ematea.
 - Pertsonen arteko harremanak eta atsedena sustatzeko antolaketa mekanismoak sortzea.
 - Lana eta elkarrekiko zainketak antolamenduan baloratzea eta aitortzea.
 - Lan-gaikarga konpentsatzeko eta gain-ahalegina murrizteko neurriak hartzea.
- **Bizitzak eta bizi-sarea ber sortzea:**
 - Metatutako ondasunak birbanatzeko praktikak garatzea.
 - Norberaren eta antolamenduaren arloan beharrezkoak ez diren ondasun eta zerbitzuak erosteari uko egitea eta horiek murriztea.
 - Erositako edo ekoiztutako ondasunak berrerabiltzea, birziklatzea, konpontzea edo oparitzea.

- **Emakumeon* proiektu pertsonalak garatzea:**
 - Prestakuntza eta ikasketak izatea.
 - Elkarrekin ikasteko espazioetan parte hartzea.
 - Diruari, denborari eta lanari buruzko erabakiak hartzea.
 - Lurraldeak eta esperientziak ezagutzeko denbora eta baliabideak eskaintzea.
 - Ekarpena, etxeko eta zaintzako lana kontuan hartuta baloratzea.
 - Lanak beste era batera ulertzea eta birbanatzea.
- **Erresistentzia elementuak ekoizpenean, banaketan, merkaturatzean eta kontsumoan:**
 - Autokontsumorako, merkaturatzerako edo trukerako ekoizpena izatea.
 - Lehengaiak ekoiztea, bertako haziak eta ongarri organikoak erabiltzea.
 - Gertutasunean merkaturatzea.
 - Lanaren banaketa bidezkoa egitea, neurketarako orduak eta produkzio prozesuaren, merkaturatzearen eta trukearen baitako funtzioak erabiliz.
 - Soberakina banatzeko era kolektiboki erabakitzea, eta banaketak emakumei* mesede egitea.
 - Antzeko beste erakunde batzuekiko aliantzak izatea.
 - Produkzioan eta merkaturatzean ingurumena zaintzeko neurriak aintzat hartzea.
 - Guztientzat onuragarriak diren trukeak egitea.

Aipaturiko tresna horien bidez, emakumeon* esperientzia zehatzak indartu nahi ditugu, bizitza ber-sortzea bermatzeko, antolaketa-prozesuen esparruan diru-sarrerak sortuz.

Indartu nahi ditugun elementuak eta saihestu nahi ditugunak identifikatzen laguntzea da asmoa, erresistentzia-ekimenak diren heinean indartu eta bidelaguntze asmoz. Apurka, antolakuntza, lan, zaintza, produkzio, komertzializazio, elkartruke eta kontsumo praktiketan txertatzen doazen artean, Bizitza Onarekin eta Ekonomia Feministarekin koherente egitea.

Pertsonak, ibilbideak eta antolaketa-prozesuak sakon eta errespetatuz baloratu eta ulertzea da helburua. Horregatik, aldaketak, geldialdiak eta, batzuetan, atzerakadak ulertzen saiatzen gara, mundu kapitalista-neoliberal eta patriarkalaren mugak gainditzen dituzten eta beste praktika berri batzuk ereiten saiatzen diren esperientzia integral baten zati gisa ulertuta.

V. MODULUA:

Erresistentzia antikapitalista, antineoliberal, antipatriarkal eta dekolonialetarako proposamen sistemikoak

MODULUAREN DESKRIKAPEN OROKORRA

Izaera sistemikoa, hots, irismen globaleko proposamena duten ekimen kuestionatzaile eta eraldatzaile kolektiboek eskainiko diegu arreta modulu honetan. Eduki ugari dituen modulu da, Ekonomia Feministaren funtsezko elementuak ikuspegi desberdinetatik nabarmenduko dituen. Ixteko eta irekitzeko unea da. Harilkatzen joan diren gogoeta asko laburbiltzen ditu, eta emantzipaziorako esku-hartze ezberdinak proiektatzen eta lotzen dituen hausnarketak ireki. Jakintzak, esperientziak eta erresistentzia ekintza politikoak gurutzatzen ditu, bizitza guztientzako beste mundu posible eta desiragarriak eraikitzeko.

MODULUAREN HELBURU NAGUSIAK

- Erresistentzia antikapitalista, antineoliberal, antipatriarkal eta dekolonialetarako proposamen sistemiko batzuen inguruan hausnartzea da xedea.



Antikapitalista, antineoliberal, antipatriarkal eta dekolonialak diren erresistentzia sistemikorako proposamenak

Ez dago erresistentziarik gabeko zapalkuntzarik. Menderatze-sistemak denboraren poderioz aldatuz eta korapilatuz joan diren bezala eta testuinguru desberdinetan gauzatzen joan diren heinean, erresistentzia kolektiboko formek eta estrategiek hainbat taktika hartu dituzte eta hainbat sektore eta borroka-subjektu mobilizatu dituzte.

Hainbat inposizio-sistema berrikusita, mendeko sektoreen kontrolari eusteko hainbat super-egitura ekonomiko, politiko, kultural eta ideologiko erabili direla ikus dezakegu. Horien bidez, menderatzea gero eta sofistikatuagoa bihurtu da eta indarkeriak ia modu ukiezinean hedatu eta barneratu dira dimentsio askotan.

Txanpon honen beste aldea erresistentzien itsasoa da, planetaren luze-zabalean sortzen joan dena. Errebeldiak ber-definituz joan dira, lubaki berriak irekiz, eztabaidak sortuz eta subjektuak aitortuz. Sektorekako borrokei dagokienez, arrazakeriaren, klasismoaren, matxismoaren, kolonialismoaren, ustiaketaren, arpilatzearen, espoliazioaren, bizitzen merkantilizazioaren eta txirotzearen aurkako erresistentzia intersektzional ez hitz egiten da jada.

Jarraian, erresistentzia esperientzia zehatz batzuk aztertuko ditugu:

- **Via Campesina:** Belgikan jaio zen 1993an, politika neoliberalen sakontzearen eta horrek nekazaritzan duen eraginaren testuinguruan. Iparraldeko eta Hegoaldeko 70 herrialde eta lurralde inguruko 150 erakunde inguru biltzen ditu. Gaur egun, munduko herri-mugimendu indartsuenetakoa bat da. Bere proposamen nagusien artean elikadura burujabetza nabarmentzen da, herriek eta komunitateek elikagaiak ekoizteko politikak kolektiboki definitzeko duten eskubidea tokian-tokian, ingurumenaren, jendartearen eta ekonomiaren iraunkortasuna oinarri hartuta.
- **Nekazarien feminismoa eta feminismo herrikoa:** 2015ean, CLOC (Nekazari Erakundearen Koordinakunde Latinoamerikarra) erakundeak nekazarien feminismo herrikoia proposamen politikoa onartu zuen formalki. Emakume* nekazariak feminismoaren baitan beren begiradak txertatzen eta aitortzen hastea bilatzen zuten.

Beren feminismo propioa deitzen diotenaz hitz egiten dute, emakume* nekazarien errealitateen espezifikotasunetik abiatzen delako. Lurretarako sarbide, eskola, garraio eta osasun zerbitzurik ez izateak sortzen duen bazterkeria egoeran jartzen dute arreta berezia. Ikuspegi horretatik abiatuta, feminismoa eraikitzen da. Laburbilduz, emakume* nekazariantzat feminismoa estrategia politiko zabala da, egitura eraldaketakoa, indarkeria eta desberdintasunak ere halakoxeak direlako. Eztabaidetan, berez lotuta egon behar duten hiru ardatz hartzen dituzte beti kontutan: kapitala, generoa eta arraza.

- **Emakumeen* Mundu Martxa:** Ekintza feministen munduko mugimendua da, eta hainbat geografiatako emakume* talde eta erakunde biltzen ditu, pobrezia eta emakumeon* aurkako indarkeria eragiten duten kausak ezabatzeko. Bere jatorria 1995ean kokatzen da, Quebecoko emakumeon* mugimenduak *Pan y Rosas* martxa ospatu zuenean, 10 egunetan 15.000 lagun en atxikimendua lortuz. Ekintza horrek herritarren babes handia erdietsi zuen eta nazioartean eragin handia izan zuen. Harrezkero, Emakumeen Mundu Martxak mundu osoko milaka emakume* mobilizatzen gaitu justizia ekonomikoaren, aldaketa politiko eta sozialaren eta emakumeon* ugalketa-eskubideen aldeko borrokaren inguruan, baita abortuaren despenalizazioa eta emakumeon* autonomia ekonomikoaren baitan.
- **Euskal Herriko Emakumeen Mundu Martxa:** 2000ko martxoaren 8ko martxak eragina izan zuen Euskal Herrian, 44 taldek osatutako plataforma anitza sortu baitzen. Urte berdineko ekainaren 17tik urriaren 7ra bitartean hainbat ekintza egin ziren Euskal Herriko hainbat lekutan, eta Donostian manifestazio nazional batekin amaitu zen. Gaur egun, Euskal Herriko Emakumeen Mundu Martxaren plataforma hainbat erakundek osatzen dute. Bere ekintza-eremua birdefinituz joan da, plataforma osatzen duten emakumeon* aniztasunari esker eduki eta ekarpen berriak emanez. Eremu horietako batzuk honako hauek dira:
 - Indarkeria transistemikoak: Gorputzetan eta lurraldeetan metatzen doazen zapalkuntza-sistema anitzak existitzen dira. Neoliberalismoa, arrazakeria, matxismoa, heterosexismoa, heldukeria, eurozentrismoa, kolonialismoa eta inperialismoa beren artean lotzen eta besteak beste, emakumeon* aurkako indarkeriak ezartzen jarduten dira: indarkeria fisikoa, sexuala, psikologikoa, sinbolikoa, hitzekoa, ekonomikoa eta ondarezkoa, familietako emakume* zaintzaileak pobretuz.
 - Bizitzaren iraunkortasuna: Bizitza erdigunean jartzea da, ikusi dugun bezala: sistemari eusten dioten lan ikusezin guztiak aitortzea

eta generoa sistema sozioekonomikoa zeharkatzen duen aldagai giltzarri gisa kokatzea.

- Gorputzak eta sexualitateak: Gure gorputzak gure lurraldeak dira. Gure gorputzen eta luraren inguruko erabaketan autonomia aldarrikatzen dugu. Gure gorputzen jabe gara, gure gorputz ahaldunduak zein lurak berriz okupatzen ditugu eta zer harreman izan nahi ditugun erabaki.
- Sarean lan egitea eta aniztasuna kudeatzea: Gure aniztasuna aitortzen dugu, hierarkiarik ezarri gabe. Badakigu desberdintasunak daudela gure artean. Uste dugu garrantzitsua dela horiek ikustea eta elkartzea, historikoki emakumeok* elkar etsaitu gaituen herentzia patriarkalarekin hausteko. Elkarriketa, zaintza-harremanen sorrera, ikaskuntza, konfiantza eta elkarrekiko errespetua aldarrikatzen ditugu, sistema neoliberal, kapitalista, arrazista, klasista, kapazitista eta heteropatriarkal anitzen alternatibak eraikitzeko.

Susmometroa aplikatuz

Erresistentzia sistemiko antikapitalista, antineoliberal, antipatriarkal eta dekolonialeko proposamenek beste mundu posibleen eraikuntza proposatzen dute. Bizitzaren arlo guztietan gauzen egungo egoera kritikatzeko, pilaketa kapitalistaren eta gorputzen, bizitzaren eta naturaren merkantilizazioaren prozesuak gaitzesten dituzte. Honez gain, ikuspegi intersektzionaletik, generoaren, etniaren, belaunaldien eta aukera sexualaren baitako zapalkuntzen aurrean kokatzen dira. Ekoizteko eta kontsumitzeko moduetan kritikoki sakontzen dute, eta bizitza beste modu batzuetan antolatzea aldarrikatzen dute. Horietako batzuek plazaratzen dute zaintza-lanaren eta lurralde-gorputzaren kontzeptualizazioa. Ekosistemak kontserbatzeko konpromisoa, naturaren eta historiaren eskubideak aitortzea eta gizonen eta emakumeon* arteko botere-harremanak eraldatzeko hartzen dituzte beren gain, bizitzaren sarea zaintzeko funtsezko premisa gisa.

Hala ere, erresistentzia sistemiko guztiek ez dute modu berean ulertzen zapalkuntzen aurkako borroka, eta opresio guztiak ere ez dituzte aintzat hartzen. Kasu askotan zapalkuntzak hierarkizatu egiten dituzte, batzuei besteei baino garrantzi handiagoa emanez. Gainera, askok zailtasunak dituzte kapitalismo neoliberalak klase zapalkuntza indartzeko menderakuntza mota guztiak baliatzen dituela ulertzeko.

Ikuspegi dekolonialetik, beste errealtate posible horietara iristeko beharrezkoak diren prozesuak ulertzen saiatzen gara, ikuspegi linealik gabe, koiuntural deituriko aldaketak, egiturazko aldaketen aurrekoak direla aldarrikatuz. Egiazki garrantzitsua estruktura aldatuko duena dela pentsatu ohi da, eta balio gutxi ematen zaio koiunturalari. Ikuspegi horren baitan, askotan, pertsonen eta eguneroko bizitzaren aldaketak ez dira kontuan hartzen, gutxietsi egin dira.

Eraldaketa proposamenek aldaketak eskatzen dituzte arlo pertsonalean, kolektiboan eta jendarte bizitzako arlo guztietan. Ez bakarrik ordaindutako lanaren munduan, edota gobernu egituretan. Ez dakigu zehatz-mehatz aldaketen erritmoak zein diren. Lehenik egitura aldatu behar al da? Posible da dena aldi berean aldatzea? Posible da aldaketa partzialak egitea erabateko aldaketa erradikala lortzen den bitartean?

Feminismoetatik, Ekonomia Feministatik eta jatorrizko herrien mundu ikuskeretatik egindako ekarpen kritikoek, galdera horiei guztiei erantzunik eman behar ez diegula onartzero garamatza lehenik eta behin. Gainera, erantzun horiek ezin ditugu bakarrik topatu. Jendarte-mugimenduekin batera emakume* kolektiboetan bilatu behar ditugu.

Kapitalismo, neoliberalismo, patriarkatu eta kolonialitatearen kontra dauden erresistentzia proposamenen bereizgarritasunak

Beste mundu posible bat eraikitzeko aukera emango diguten begiradak eraikitzeaz gain, emakumeongandik* lortutako erresistentziako esperientzia ekonomikoekin bezala, emakumeontzat* posible den beste bizitza baten norabidean doazen ezaugarri etiko, politiko eta ekonomikoak aurkitzen goaz:

- **Zer bilatzen dute proposamen hauek?** Mundu desberdina bizitza sozial eta pertsonalaren arlo guztietan (pertsonen eta bestelako izaki bizidunen arteko harremanei dagokienez).
- **Non bilatzen dugu?** Beste bizitza posible hori eta beste mundu posible hori eraikitzeko gako batzuk, gure herriaren historia sakonean, gure sustraietan daude. Bertan bilatzen ditugu, iraganeko akatsak ez errepikatzeko eta iragana ez idealizatzearekin tentuz ibiliz.
- **Nola bilatzen dugu?** Jarrera informatu, alai, kritiko eta susmagarriarekin bilatzen ditugu gako horiek, baina beti bizitzaren, gorputzen, bizi-proiektuen... zaintza aintzat hartuz. Denbora, aurrerapena, garapena eta hazkundera ulertzeko dugun modua hautsiz. Gure mendebaldeko kultura politikoa, kristaua eta modernoa susmopean jarritz. Esentzialismorik gabe; berez eta betiko ezer ez dela onartuz.

- **Beste mundu/bizitza posible baten zer ezaugarri aurkituko ditugu?**

Balioei dagokionez, erdigunean jartzen da zaugarri eta interdependentetzat hartzen diren bizitzak zaintzea. Elkartasuna eta elkarrekikotasuna sustatzen dira eta autosufizientzia, indibidualismoa, mendekotasuna eta immolazioa baztertu. Bizitzaren sareak erreproduzitzeko eskatzen duen denbora eta lana baloratzeko modu desberdinak daude. Politikari dagokionez, autonomia sustatzen da, baina zainketan eta lanetan elkarrekiko mendekotasunarekin, ez dira arlo pertsonala eta kolektiboa kontra-jartzen, espazio komunitarioak lehenesten dira. Ekonomiari dagokionez, oikos-ean (etxean) dena dago konektatuta, dena dago lotuta; ama lurra etxea da, ez baliabidea; erabilera-balioak pribilegiatzen dira, ez aldaketa-balioak; ez dira berdintzen ondasun naturalen eta giza ondasunen balioa diruarekin; funtsezko balioak lanarenak dira, bizitza eta zaintza eraldatzeko ahalmen gisa; natura eta ama lurra historiaren parte dira berriro, eta eskubideak dituzte.



VI. MODULUA:

Eskubideak, beharrak eta pribilegioak

MODULUAREN DESKRIKAPEN OROKORRA

Erionka handia da sistema barruan nola daramagun identifikaiea. Iraultza iraunkorra da, eguneroko errebelia txikien onlorioz iruna. Iraultzak konplexuak eta deseroak dira, oso nabarrak ditugun eta gutxitan berrikusten ditugun ikusmolde eta irudimen asko astindu eta zalantzan jartzen dizkigutelako.

Modulu honen ardatza gure artean estereotipoek eta aurreiritziek nola funtzionatzen duten identifikaiea da, egitura eta dinamika arrazistak, neo-kolonialak eta hetero-patriarkalak sostengatzen nola laguntzen duten aztertzeo. Ikusiko dugu, halaber, eskubideak nola eta zer elementuren baitan eraiki diren eta noraino diren pertsona guztientzat. Alde horretatik, eskubideak funtsezkoak izan arren, pertsona guztientzat gauza bera ez direla aztertuko dugu.

Denok gara arrazistak, eta arrazakeria (ia) alde guztietan dago. Gu ere arrazializatzen gaituzten espazioetan bizi garen neurrian, beste batzuen eragile arrazializatzaile gisa funtziona dezakegu. Arrazismo sozialaz, egiturazkoaz, instituzionalaz eta arrazismo barneratuaz edo naturalizatuaz hitz egiten da. Praktika eta dinamika arrazisten korrelatuen artean, pertsona askoren eskubideak murriztea eta aukerak ixtea da arazo ohikoenetako bat. Hiritartasun kontzeptuan oinarritutako pertsonen eraikuntza, mugatua eta mugatzailea da gutxienez. "Ezberdina" bezala irakurtzen da bestea, arrotza eta periferikoa.

Elementu horiekin guztiekin, sistema kolonial eta arrazistak nola zeharkatzen gaituen aztertuko dugu. Hetero-patriarkatuarekin eta kapitalismoarekin nola egituratzen den ikusiko dugu, horiei aurre egiteko moduak elkarrekin pentsatzeko.

MODULUAREN HELBURU NAGUSIAK

- Arrazakeriaren baitan egituratutako jendarte hau iraunarazten laguntzen duten estereotipoak eta aurreiritziak egunerokoan nonahi daudela detektatzea.
- Zanaketa-ardatz horiek eskubideak eta aukerak mugatuz eta desberdintasunak eta indarkeriak sakonduz nola jarduten duten berrikustea.
- Arrazakeriari aurre egiteko eta pribilegioak desegiteko tresna pertsonal eta kolektiboak plazaratzea.

Estereotipoak eta aurreiritziak

Zein dira eta nola funtzionatzen dute gure eguneroko bizitzan?

Estereotipoek eta aurreiritziek besteekiko ditugun hautemateak baldintzatzen dituzte, baina baita gure nortasunak, nahiak eta itxaropenak eraikitzeko moduak ere. Errespetuaren eta errekonozimenduaren nozioa eratzeko prozesuetan eta balio gisa ulertzen dugunaren eraikuntzan eragiten dute. Baita balio hori pertsona, ekintza edo bizitzako elementu desberdinei nola eta zer neurritan ematen diogun ere.

Aurre-iritziak izatea, aldez aurretik gauzaren bati buruzko kontzeptu edo judizio bat eratua izatea da. Oinarri eta esperientzia errealik ez duen, eta orokorkerietan oinarrituta dagoen iritzi baten osiera da aurre-iritzia. Egoera bat, pertsona bat edo pertsona talde bat elementu nahikorik gabe modu positiboan edo negatiboan kritikatzera garamatza. Jarrera hori jendarteko esparru eta jarduera guztietan ikus daiteke, edozein jendarte-taldetan eta edozein adin-taldetan. Diskriminazio egoerak eragiten dituen pentsamolde bat da.

Estereotipoak aldez aurretik pentsatutako ideia, irudi edo kontzeptu okerrak dira, eta pertsona-taldeen ingurukoak dira, oro har, talde horren ezaugarri komun batzuk modu sinplista, estatiko eta iraingarri batean definituz. Ideia horiek txikitatiki txertatzen dizkigute eta hedabideek etengabe indartzen dituzte. Horregatik, estereotipo asko oso errotuta egoten dira gugan, hartzen ditugun erabakietan modu positibo edo negatiboan eragin dezaketelarik.

Estereotipoak kultura, jendarte, arraza, genero, sexu, adin, moda edo erlijioen ingurukoak izan daitezke, batzuk bakarrik aipatzearen, eta kategoria horretan sartzen diren pertsona guztiei aplikatzen zaizkie. Estereotipoak, une jakin batean

pertsona, gauza edo egoera baten aurrean sor daitekeen aurreiritzi batetik eraikitzen dira. Ostera, estereotipo horiek orokortze iraunkor bihurtzen dira, estigmatizazio negatibo baten zama bihurtuz, ondorio bortitzekin, eta pairatzen duen subjektua nekez atera daiteke zapalkuntza egoera horretatik.

Auto-nahikotasunaren eta zoriontasunaren eredu faltsuaz hausnartzen

Kontsumismoaren gurpil eroak, espoliazio, arpilatze eta estraktibismo zirkuitu bortitz oso bat ber-sortzen du hego globaleko gorputz, herri eta lurraldeetan. Zoriontasuna eta erostea parekatzen dituen ideala, hutsune emozional eta norbanakoikeriaz elikatzen da. Honek tranpa asko ditu: lotura sozialen haustura, eskubideen galera eta hauen merkantzia bilakatzea. Prozesu honen baitan, osasuna, hezkuntza, erretiroa eta etxebizitza moduko ondasun komunak pixkanaka, finantza merkatuak xurgatzen ditu.

Pribilegioak berrikustea hori guztia begiratzea da, eta kontsumo ohituren eta praktiken zati handi bat zalantzan jartzea. Beharren asetzea era kolektiboan pentsatu eta antolatzea da prozesu horri aurre egitea.



Eskubideak, desberdinkeriak eta pribilegioak

Aurreiritziak, estereotipoak eta estigmatizazioak ez dira ezerezetik sortzen, bizi garen jendartearen zati eta emaitza dira. Aurreiritzi eta estereotipoek gure gorputzak, bizitzak, enpleguak eta aukerak zeharkatzen dituzte. Eta ez da kasualitatea horietako asko, guztiak ez badira, zapalkuntza-ardatz bihurtzea: sexu-generoa, klasea, arraza, adina, aniztasun funtzionala, kultura, erlijioa eta jatorri geografikoa, besteak beste.

Aurreiritziak, estereotipo estigmatizatzaile sendoetan sakontzen doaz, indarkeria, bazterketa eta desberdintasun egoerak sortzera iritsi arte, inpaktu sinboliko zein material handiekin. Honegatik da garrantzizkoa aipaturiko guztia sentipentsatzea eta gure inguruan dinamika hauek nola dauden identifikatzea. Dena den, estereotipoek gudan eta gure egunerokoan duten presentzia problematizatzea ez da desberdintasun guztiak homogeneousatzea bilatzea. Adi horrekin.

Aurreiritziak, lanaren sexu-banaketa eta lan-merkatuaren bereizketaren parte dira. Badirudi feminizatutako lanak zaintzarekin, etxearekin, garbitasunarekin, hezkuntzarekin, osasunarekin eta elikadurarekin zerikusia duten guztiak direla. Ez-produktiboak izatearen aurreiritziak tarteko, gainera, ez dira lan bezala aitortu eta erregulatuak izan.

Emakumeok* era guztietako estereotipoengatik zeharkatuak gara. Generoari lotuak dira gehien aipatzen direnak, baina ez dira bakarrak. Ez da gauza bera emakume* zuria edo arrazializatua izatea, zaharra edo gaztea izatea, berehalako premia ekonomikoak asetu gabe izatea, edo lasaitasun ekonomikoz bizitzea, egoera administratibo irregularrean egotea edo paperak izatea. Ez da gauza bera sareak, babesa eta inguruan jendea izatea, edo isolatua egotea, eskubideak eta babeserako baliabideak ez ezagutzea.

Euskal Herrian emakume* arrazializatu, pobretu, migratu eta paperik gabekoek, lan-nitxo zehatz bat dute esleitura, norberaren itxaropenak, bizi-ibilbideak eta ikasketak alde batera utzita. Barne-erregimeneko langileen % 90 baino gehiago, mendekotasun handiko egoeran dauden pertsonen zainketa intentsiboak egiten dizkietenak, emakume* migratuak dira. Estereotipoek desberdinkeriak sortu eta eskubideak eskuratzea galarazten dituztela erakusten duen adibide argi eta grafiko bat da. Egoera hori lan merkatuaren segregazioaren ondorio da, eta ohikoa da hainbat jendarte-sektoretan.

Larruazalaren kolorearen, jatorri geografikoaren, administrazio egoeraren eta behar ekonomikoen arabera lan sektore jakin batzuk esleitzen zaizkie, eta ez beste batzuk. Zaintza, eraikuntza, ostalaritza eta etxer etxeko banaketa lan

eremuetan hauteman dezakegu, adibidez, lan merkatuaren segregazioa. Enplegu horien kalitateak, jendarte babesak eta urratze egoeren eraginpean egoteak adierazten dute asimetriek benetako ondorioak dituztela eskubideen murrizketetan.

Lan-baldintzen prekarietatearen ezaugarriak dira, besteak beste: lanaldi luzeak, ordainsari txikia, segurtasun eta higiene baldintza eskasak, prestigio txikia, kontratuaren baldintzak betetzeko kontrol txikiak eta ezegonkortasuna. Egoera horrek emakume* migratuen bizitzak baldintzatzen ditu, ez bakarrik termino materialetan, baita maila sinbolikoan ere, balioespen eta aintzatespen sozial eremuan hain zuzen.

Lan-merkatuaren prekarizazio, malgutasun eta segmentazio testuinguru honetan, pertsona guztiok ez dugu lan-baldintzak negoziatzeko aukera berbera eta enplegu jakin batzuk egitea, berehalako biziraupen estrategien baitan kokatzen da.

Enplegu prekarioetan eta jendartean gutxietsita daudenetan sailkatzeko praktika anitz ematen dira. Omisioak, erregulaziorik ezak eta ikusezintasunak agerian uzten dituzte erakundeetan eta jendartearen estereotipoak eta aurreiritziak. Lan-nitxo horietan emakume* migratuak egoteak agerian uzten ditu hainbat logika patriarkal, eurozentriko eta neo-kolonialista.

Konturatu gabe, gure egunerokoan, etxean, lanetan, espazio informaletan, publizitatean eta komunikabideetan hainbat estereotipo, aurreiritzi eta estigmatizazio errepikatzen dira. Irudiak, koloreak, izendatzeko eta kalifikatzeko moduak... naturalizatzen ditugu, duten karga sinboliko eta materialaz ohartu gabe. Horrek ondorio asko ditu, bai desberdinkerietan eta bidegabekerien sakontzean, baita gure nortasunaren eraikuntzan, geure burua baloratzeko moduan eta ditugun asmoetan ere.

Zoriontasunik gabeko jendarte baten adierazgarri dira aurreiritzi eta estereotipoak, eta hauen ondorioek, potentzia kolektiboa mugatu, obturatu eta eragozten dute.



VII. MODULUA:

Dekolonialtasuna eta desiraren ber-jabetzea fugarako potentzia gisa

MODULUAREN DESKRIKAPEN OROKORRA ETA HELBURUA

Modulu honek bi ariketa konbinatzen ditu. Alde batetik, mundu kolonialaren aztarnak gure egunerokoan identifikatzen saiatzen da eta bestetik, desioak jorratzen ditu.

Emakumeok* desiradun subjektu gisa ukatuak izan gara. Errua, beldurra eta besteentzat izateak guretzat nahi dugun hori ez lehenestea eragin du. Ero, sorgin eta histerikotzak jo eta kondenatuak izan gara jendarte honetan. Desioak autoafirmazio-prozesu gisa lantzea ariketa emantzipatzailea da maila pertsonalean eta kolektiboan.

Mundu kolonialeko larruak

Mundu kolonialaren ondarea gaur egunera arte iristen da eta, aipatu dugun bezala, egunerokotasunaren hainbat geruzatan iragazkortu zaigu. Kolonialitatearen jarraikortasunaz dihardugunean, mundu kolonialak bortizki sortu eta gaur arte iraun duten dinamikak ezartzen dituen subjektuen arteko harremanaz ari gara. Kolonialitatearen jarraikortasunaz hitz egin dezakegu, mundu kolonialak ezarritako dinamikak txertatzen eta iraunarazten dituen erlazio inter-subjektibo bezala.

Bestelakotasuna, ezkutuko mehatxu iraunkor gisa

Kolonialismoa atzerriko estatu batek herrialde bat menderatu eta ustiatzeko erabiltzen duen sistema sozial eta ekonomikoa da. Oro har, indar militarra erabiltzen da okupaziorako eta kolonizatzaileak kontrol militar, politiko, ekonomiko eta soziala ezartzen ditu. Normalean, kontrol ardua horietarako, herrialde konkistatzaileko pertsonak izendatzen dira. Kolonizazioak konkistatzaileek lurra bereganatzea, herritarrak menderatzea eta metropoliak herrialde kolonizatuarekiko dituen interesak inposatzea dakar.

Kolonialismoa eta neokolonialismoa ez dira gauza bera. Azken honek zeharkako kontrola eta indarra erabiltzen ditu lurralde bat menderatzeko. Normalean elite politiko eta ekonomiko bat ezartzen da biztanleria kontrolatzeko eta herrialdeko baliabideez jabetzeko baina merkantilismo, klientelismo politiko, enpresa-globalizazio eta kultura-inperialismoren bitartez, besteak beste.

Europako kolonialismoak bi etapa nagusi izan zituen: lehena XVI. mendean, espainiar eta portugaldar inperioek burutua, eta bigarrena, XIX. mendearen azken herenean eta XX. mendearen lehen erdian gertatu zena, non Europako hainbat herrialdek beste herrialde batzuk oso azkar konkistatu zituzten. Garai hartako kolonialista nagusiak Belgika, Frantzia, Erresuma Batua, Espainia, Portugal, Alemania, Italia, Errusia, Danimarka eta Herbehereak izan ziren.

Kolonialismoak mundua erdigune eta periferia kontzeptuen baitan banatzea ekarri zuen. Baita desberdintasunaren eraikuntza soziala asimetria eta arazo gisa eraikitzea. Zuria eta erdigunekoa ez zena, bestelakotzat jo zen. Bestelakotasunak, kategoria negatibo eta sailkatzaile gisa, batzuen nagusitasuna eta besteen gutxiagotasuna azpimarratzen ditu. Animalizazioaren, basakeriaren eta belztasunaren kontzeptuak mendebaldetik sortu ziren indarkeria justifikatzeko eta legitimatzeko.

Botere-matrize koloniala deuseztatzen

Errotik astindu behar da boterearen matrize koloniala. Bere gainean eraiki da arrazionaltasun modernoa eta gaur egun indar handia izaten jarraitzen du dominazioaren jarraikortasuna bermatzeko dispositiboak eguneratzen joan direlako. *Bestelakotzat* hartzen dena espoliatzeko, arpilatze eta kontrolatzeko baldintzak bermatzen jarraitzeko estrategia anitz berregituratzen doaz.

Emakume* gisa, kolonialitate mota desberdinak erreproduzitzen ditugu. *Boterearen, egitearen, jakitearen eta denboraren kolonialtasuna* izaten dira ohikoenak. Ama, alaba eta emazte onak garen aldetik, gure nortasunaren zati handi bat besteengan boterea uztetik dator, kasu honetan boterearen kolonialtasunaz ari gara. Makina gisa egunari orduak gehituz lan egin, eta hala ere produktiboagoak izan gintezkeela sentitzen dugunean, egitearen kolonialtasuna birsortzen dugu. Gure gaitasunak, jakintzak eta iritziak aitorzen ez ditugunean, *jakintzaren kolonialtasunaz* ari gara. “Denborarik ez dugula” diogunean eta norberarentzako denbora erruarekin bizitzen dugunean, *denboraren kolonizazioa* birsortzen ari gara.

Iraultza ez da erreprodukzio-bitartekoez jabetzera mugatzen. Gorputzen jakintzaz, sexualitateaz, afektuez, hizkuntzaz, irudimenaz eta desiraz ere jabetzea da. Iraultza, ondoezaren kudeaketa kolektibo eta sortzailea da eta, beraz, borrokarik biziena eta erabakigarriena egunerokoan ematen da.


Inkontzientearen dekolonizazioa

Batzuetan, ezkerretatik eta berdintasunaren feminismoetatik, aipatutako eredu kolonialak sustatzen dira. Nola funtzionatzen ari garen berrikustea garrantzitsua da, eta aintzat hartuak izan ez diren subjektuak errespetuz izendatuak, aitortuak eta baloratuak izateko premiazkoa da ikuspegi eta praktika interseksionalak txertatzea.

Kapitalismoa elikatzen duen bizi-indarra ez da lan-indarrera mugatzen. Eta baieztapen honek lanaren nozioaren beraren metamorfosi erradikala suposatzen du. Bizitzeko moduak sortzeko grina, indibidual zein kolektiboa, da kapitalak ustiatzen duena. Menderatzea eta indarkeria, kulturala eta subjektiboa ere bada, eta horrek botere maltzur zabalagoa, sotilagoa eta borrokatzeko zailagoa izatea dakar.

Zentzu horretan, dekolonialtasunak ihes egiteko gaitasuna ematen digu, dominazio-matrizea gure barnean nola eta non dugun identifikatzeko eta kanporatzeko tresnak eskaintzen dizkigulako. Begirada eta jarrera dekolonial bat hartzeak esan nahi du, besteak beste, badirela mundua ulertzeko eta hau ber-sortzeko beste modu batzuk. Deslotze eta desafekzio ariketa ahaltsua da hau.

Inkontzientearen dekolonizazioa aurreikusten ez duen eraldaketa politiko oro, zapalkuntza-moduak errepikatzen kondanatua dago.



Ihesguneak, askotariko feminismoetatik

Oraintsu, agian, egunerokotasunaz jabetzeko eta borrokatzeko prozesurik indartsuenak askotariko feminismoetatik eta, batez ere, hegoaldeetatik ari dira tratatzen eta iruten. Egunerokotasunaren berrasmate prozesuen barruan, sormen-ahalmenetik abiatuta, Greba Feministari buruzko eta gorputzak desirarako eta gozamen iraultzailerako espazio gisa berrokupatzeari buruzko zertzelada batzuk jasoko ditugu jarraian.

Greba Feminista eta zainketen lanuztea

Gelditzeko ekintzak praktika antagoniko bat suposatu zuen, hainbat ikaskuntza inplikatu zituen, zailtasunak eta potentzialtasunak ikusaraziz. Une pedagogiko kolektibo bizia eratu zen. Grebak ezinegon ekarri zuen eta berretsi zuen kolektiboki ezartzen ari garen muga, biktimen lekua subjektuen lekura mugituz; borrokan ari garen emakume* gisa dugun lekua birstortuz. Zainketen lanuzteak, gainera, lana zer den era praktikoa ber-definitzera eramane gintuen. Lan gaitzera ikusgarri bilakatu zuen, besteen sostenguari muzin egitea imajinatzen ez duten emakume* askoren bakardadean besteak beste.

Gorputz gozagarriaren ber-okupazioa

“Dantza egiten duen gorputzaren goraiapamena” (*Elogio del cuerpo que danza*) testuan, Silvia Federicik geure gorputza, dominazio eta guda eremu gisa irakurtzera gonbidatzen gaitu. Menderatzeko eta autoalienazioa barneratze teknika eraginkorrak konbinatuz, hainbat ekoizpen modutan gorputzak fabrika bizidun moduan kontsideratuak izan direla dio. Naturarekiko haustura sakonaren parte gisa ulertzen du gorputz eta desioen desjabetzea, eta hau sistemaren erreproduktzioa ahalbidetzen duen dinamika ikusezin nagusietako bat da Federicirentzat.

Feminismoetatik, gure gorputzak esplotazioaren muga-leku gisa ulertzen dira. Erresistentziarako lurralde gisa, gaitasun eta hizkuntza disruptibo eta iraultzaileekin. Dantzak, barreak, jolasak, lagunekiko kontaktuak... sakonki politikoak diren tresna gisa proposatu eta lantzen dira, kapitalismotik ihes egin nahi duten gure gorputzen eta desioen berreskuratzearen, balioztatzearen eta aurkikuntzaren aldeko borroka eginez.

Dekolonizazio-prozesu horren barruan, emakume* gisa, gure gorputzak gozamenerako, askapenerako eta beste hizkuntza eta erregistro disruptibo batzuk eraikitze espazio gisa berreskuratzeari ekiten diogu.

VIII. MODULUA:

Ziklikotasuna eta emakumeon* gorputzen kolonizazioa

MODULUAREN DESKRIBAPEN OROKORRA

Sistema patriarkal, kapitalista eta neo-kolonialak modu anitzetan eragiten digu, ikusi dugun moduan. Modulu honetan, obulatzan dugun gorputzetara hurbilduko gara. Alde batetik gure prozesu fisiologikoetara eta bestetik, minen jatorrietara.

Hilerokoa prozesu fisiologiko bat da, gorputzek egiten dituzten beste milaka moduan. Baina hilerokoaren zikloa gai politikoa ere bada, gorputzen jarioa era batekoa edo bestekoa delako testuinguruaren arabera. Hilerokoak berez, ez luke minik eman behar. Ez fisikoa ez emozionala (hau ahanzturan geratzen da maiz). Baina inguruko edozein emakumeri* galdetuta mina gure bizitzetan oso presente dagoela ikus dezakegu, oro har, eta zehazki hilerokoaren zikloarekin zerikusia duten uneetan. Aurreko moduluetan ikusitako zapalkuntza ardatz ezberdinek sortu eta elikatzen dituzte min hauek. Ez dira gure gorputzen funtzionamendu akatsak, sistema biozidaren ondorioak baizik.

Emakumeon* gorputzen gaineko ikerketak eta zehazki hilerokoaren ingurukoak oso urriak dira, gure mineri ez zaielako garrantzirik aitortzen. Honen aurrean, suspertzen ari da norberaren gorputzaren baitan ikertzeko joera. Informazio hau sortu eta partekatzen goazen heinean, hilerokoaren baitako ziklikotasunak nola eragiten digun ikasten ari gara, gure kabuz. Maila indibidualean aurrera pausu asko emateko aukera badugu ere, maila kolektiboa ezinbestekoa da Kultura Ziklikoa deritzogun honen sorreran. Kultura Ziklikoa taxutzen dugun bitartean sistema kapitalista, arrazista eta patriarkalaren erauztea delako bidea.

MODULUAREN HELBURU NAGUSIAK

- Hilerokoaren zikloaren inguruko informazio partekatzea.
- Ziklo honek dituen faseak adieraztea.
- Gure gorputzetan (maila anatomikoan) jasaten dugun kolonizazioaz hitz egitea.

Hormonen dantza, emozioak eta talka kulturalak

Hilerokoaren zikloan murgilduko gara lau fasetan zehar bidaiatuz. Prozesu fisiologikoaren inguruko azalpen batzuen ondoren, ohikoak izan daitezkeen emozioez mintzatuko gara eta hauek jendarte produktibistaren dinamikekin zer nolako harremana duten.

Hilerokoaren zikloak gorputz osoan du eragina, literalki: obulutegiek garuneko hipofisi eta hipotalamoarekin harreman zuzena dute, eta hauek gorputz osoko zelulekin. Beraz, bai, gure dantza hormonalak eragiten digu, eta asko. Fisiologian asko murgilduko ez bagara ere, bi hormonez hitz egingo dugu: estradiola (estrogeno deritzoguna) eta progesterona. Erraz ulertzeko moduan, estradiolak energia gorakadak eragiten dizkigu eta progesteronak geldotasunera garamatza.

Hurrengo lerroetan fasez fase aztertuko ditugu mugimendu fisiologiko, emozional eta kulturalak:

Hilerokoaren Fasea

Fluxu gorri kartsua jariatzen hasten den eguna kontsideratzen da lehen eguna eta hiru eta zazpi egun arteko iraupena izan dezake. Uteroak lan handia egiten du endometrioia askatzen joateko. Aurreko zikloaren arabera izango da hein handi batean hilerokoaren fasean sentituko duguna. Litekeena da, hilerokoaren lehen egunean logura handia sentitzea, nagia, mina edo ondoeza izatea.

Hilerokoaren lehen egunek, gure kasuan, talka zuzena egiten dute produktibitatearen inposizioarekin. Nekatuta gaude, nagituta, etzanda egoteko gogoz, epeletan, ezer egin gabe, hitz jarri murrizarekin, agian molestia dugu gerrialdean. Agian mina, arina ala izugarria. Min hau kanpo presiorik gabe kudeatzerik izango bagenu agian desagertuko litzake eta agian ez, eta orduan ondoezaren inguruko azterketa bat egin beharko genuke. Baina gehienetan gure kasua kudeatu ezin dugunez, hilean behin gutxienez, pilularen bat hartzen dugu.

Hilerokoak tabu izaten jarraitzen du, baita odola bera ere: ezkutatu beharreko zerbait, zikina, pribatua. Existituko ez balitz, hobe.

Odola deritzoguna, ez da guztiz odola. Fluxu gorriaren osagai nagusiak hurrengoak dira: ura, endometrioaren ehunaren heren bat (beste biak xurgatu egiten ditugu), lipidoak, proteinak, progesterona, ama zelulak, kutsatzaile organikoak, uteroko zain eta arterietako odol freskoa, baginako mukosa, muki zerbikala eta ARN zelularra.

Aurre-Obulazio Fasea

Mutazioa hilerokoaren azken egunetan hasten bada ere, bostgarren egun ingurutik obulazio tartera arte irauten du fase honek. Estrogenoak dira egun hauetan zehar protagonista eztabaidaezinak. Eta estrogenoekin, energia gorakada garaia, beti ere, aurreko faseetan atseden hartzeko aukerarik izan badugu. Obulutegian folikuluaren garapenak aurrera darrai eta uteroan endometrioa osatzen doa.

Energia dinamikoa eta beldur gutxi izaten ditugu. Guztiarekin ahal dugunaren sentsazioa gorputz ezberdinetan errepikatzen den bizipena da. Batzuetan energia eta indarra kudeatzea ez da erraza izaten. Izan ere, emakumeok* eta kirolak ez dugu harreman oso ona oro har. Estrogenoen presentziak energiaren gorakada eragiten du eta hau ez erretzeak, antsietatearen antzeko egoeretara eramaten gaitu.

Obulazio Fasea

Obulutegi bakoitzean milaka folikulu ditugu nerabezaroan eta obulazio faseetan garatzen joaten dira. Folikulu batek guztiz garatzeko 100 egun inguru behar izaten ditu eta, hilean behin, bat askatzen du obulutegiak. Folikulu garatuari obulu deitu ohi zaio, baina obulua, berez, obozito ernaldua da. Zikloaren inguruan orain arte sortutako material gehienak obulu deitzen dio obozitoari. Obulazioak, hots, obozito garatua obulutegitik ateratzeko prozesuak, 24-48 ordu inguru irauten du. Irteera fase hori estrogeno piko batek eragiten du.

Oreka hormonalean (besteak beste, animoa, hezurren trinkotasuna, energia, sexu-desira, tiroidea, azala eta ilea osasuntsu mantentzen dizkigunak), obulazioa da gakoa. Obulaziorik gabe ez dago progesteronarik, beraz, ziklo estrogeniko amaigabe batean bizi gara gutako asko, gehienak, egun. Norbanako mailan neurriak hartu ditzakegu, baita maila komunitarioan ere.

Oro har fase gozagarritzat jo daiteke fase hau, pinpirin, bero eta zaintzaile egoteko joera izan ohi dugulako fase honetan. Eta halakoa izango da askotan fase hau, baina ez beti. Edertasunarekin, desio sexualarekin eta zaintzekin izan ditugun bizi esperientziak, eta egun dugun testuinguruak asko baldintzatuko du gure obulazio garaia. Eta tamalez, balio sistema patriarkalak sakon kutsaturiko eremuak dira hauek.

Aurre-Hileroko Fasea

Fase honek hilerokoa jaitsi baina lehenagoko 11-14 egunak barnebiltzen ditu, eta hala, obulazioa eman ostean hasten da. Obozitoa askatzeko prozesuak

progesterona izeneko hormona bat sortzen du. Honek, eragin lasaigarria izaten du, geldotasunera eramaten gaitu, sentikortasuna handitzen digu. Eta hiru ezaugarri hauek, talka egiten dute bizi abiadura bizkor eta produktiboarekin.

Emakumetasunean* hezitua izan garenak, besteak beste, amorrua sentitzeko eta era osasungarri batean kudeatzen ikasteko aukera eskasak izan ditugu. Amorrua oso presente dagoen fasea da hau. Kasu batzuetan gure barnera bideratutako amorrua da, zigorra eta kulpa presente egon daitezkeelarik.

Bakardadea, barrura begiratzea, isiltasuna entzutea eta iluntasunean murgiltzea, maiz, behar fisiologiko bilakatzen dira. Beldur, dolu, min eta mamuek bisitak egiten dizkigute maiz aurre-hilerokoaren fase honetan.

Gorputzen kolonizazioa

Gure gorputzetatik erbusteratuak izan gara, gure anatomia, prozesu fisiologiko zein emozionaletatik aldenduak. Guren gorputzean arrotz sentitzen gara gutako asko. Maiz, ez dugu ulertzen zer gertatzen zaigun. Zailtasun handirik gabe ulertu dezakegun egoera da hau, bagina eta bulba bereizten ez duen jendarte batean, pixa egiteko zuloa eta bagina bereizten ez ditun jendarte batean, emakumeok* eiakulatu dezakegula ezkutatzen den jendarte batean bizi garen heinean.

Gorputzetan itsatsita ditugun biolentziak ikusgarri bilakatu nahi ditugu. Mingarri izatera irits daiteken prozesu deserosoa bada ere, beharrezkoa da pausu hau ematea gure gorputzak okupatu ahal izateko.

Hitzek errealitatea sortzen dute

Aipatutakoez gain, patriarkatuaren bestelako arrastoak ere topa ditzakegu. Alde batetik, gure gorputz eremu bat ugalketara soilik bideratuta dagoela ulertzera ematen duten izendapenak ditugu. Honen adibide anitz topa ditzakegu. Nagusia da *“ugalketa aparatu”* izendapena bera. Baina gure bizi osoan zehar alor asko osasuntsu mantentzen dituen organoari *“ume-toki”* deitzea, latza da. Hormona bati *“pro-gesterona”* (gestatzeko oparoa, esan nahi duena), deitzea bezalaxe. *“Funtsezko organo”* izendapena dute ugaltzeko balio dutenak. Eta *“funtsezko”* ez direnak *“osagarri”* moduan izendatzen dira maiz. Hauek, *“osagarritzat”* jotzen direnak plazerarekin harreman estua duten gorputz eremuak dira.

Gure eiakulazio guruinei bere abizena jarri zien Alexander Skene-k eta *Skenitis* deitu zion hauen infekzioari. Hala, Alphonse Guérin-eri kendu zion gure guruinen izendapena: *Guérin glandulak* ziren *Skene glandulak* izan baina lehen.

Gizon konkistatzaileen izen eta balentriak ekartzen jarraitu dezakegu, luze. Regnier De Graaf dago gure obulazioetan, bereak omen dira gure folikuluak, *Graaf-en folikulo* deitzen baitira. Caspar Bartholin ere ez zen atzean gelditu. Bere izena gure gorputzetan zintzelkaturik utzi zuen, mendeetan zehar iraun zezan: Gure lubrikazio guruinak *Bartholinen guruin* izendatzen dira. Gabriel Falloppio ospetsua ere hortxe dugu, uteroko tronpetan. Ernst Gräfenberg-en omenez dugu *G puntua* deiturikoa. Hauek ez dira guztiak, gizonen izendapenez beterik dugu gorputza. Baina ez hori bakarrik. Erditzeko aukietan, tresna medikuetan, interbentzio kirurgikoetan eta medikamentuen izendapenetan ere nonahi ditugu.

Izendapenak alde batera utzi eta bulbaren errepresentazioetara salto egingo dugu orain. Eredu normatiboarekiko presioa isilpean artikulatzen da. Lehenik, bulbaren ikusgarritasunaren hutsune nabarmenaren bitartez. Bizitza zikloan zehar, haurrentzako sexu heziketarako materialetan topa ditzakegu lehen errepresentazioak eta hurrengoak, pornoan.

Bulba bere osotasunean ageri denean, maiz gertatzen ez dena, gorputzetik deslotuta adierazten da, pastel koloretan eta marra zuzenekin perfilatuta, alde simetrikoekin, babes funtzioa duen ilerik gabe... Kanpoko ezpainak handiago irudikatzen dira beti eta barrukoak txikiago. Haurrentzako liburuetatik pornora, bulba eredu berdina adierazten da, pertsona gehienen bulbekin zerikusirik ez duena. Normalizatuta eta jendarte mailan onartuta dagoen biolentziaz ari gara.

Guzti honetaz ondorioztatzen duguna hurrengoa da: hilerokoaren zikloaren eta gure bulben bitartez beha ditzakegun min eta desioek errebeldiarako bide zidorrak aurkeztu dizkigute. Adi egon gaitezen gorputzen adierazpenei, bizitzak ber-sortzeko abilezia handiagoa dute sistema biozidak baino. Geure buruak zaintzeko ardura hartzeaz gain, zoriontasun eredu faltsuak saldutako norberekoikeriatik atera eta elkar gaitezen, parteka ditzagun jakintzak. Gure artean, beldurrei begietara begiratzen, eta gozamina ber-okuputzen.



